

Eskalatzaileak direnentzat ibilbide aproposa du aurtengo Emakumeen Birak



Durangaldea | Lurretan hasi eta amaituko den etapagaz abiatuko dute aurtengo Emakumeen Bira, maiatzaren 22an. Erlojupeko barik eta mendate askogaz, eskalatzaileei begira egindako ibilbidea da. UCI mailako 20 taldeen artean, Bizkaia-Durango dago. Agurtzane Elorriagak gidatutako taldeak 23 urtez azpiko sailkapena lehiatu gura du. • 19

Gure Zirkuaren hamaika emanaldi, gaurtik hasita



Berriz | Oiartzunen (Gipuzkoa) sarrera denak salduta heldu da Gure Zirkua Durangaldera. Hamaika emanaldi egingo ditu bertan, eta sarreren salmenta zitzu bizian doa. Beraz, Durangaldeko saioak ere arrakastatsuak izango dira. Akrobatikak, magia eta zuzeneko musika eskaniko ditu, besteak beste, lehen euskal zirku ibiltariak. • 17

*“Arau larregi ditugu
modan, eta niri
zoramena gustatzen zait”*

Moda munduan pausoak ematen ari da Maialen Illescas. Bilboko Ertzilla kaleko erakusleiho batean bere diseinuak jarri ditu. 'Kaleko Divak' proiektuan buru-belarri dihardu. 2-3



LEHIOR ELORRIAGA

Kanpaina erdira helduta, alderdiek lehian jarraitzen dute

Durangaldea | Astebete besterik ez da falta udal hauteskunde kanpaina amaitu eta bozkatzeko eguna ailegatzeko. Kanpainaren erdira helduta, alderdi politikoei lehian jarraitzen dute, mitinen eta agerraldien bidez. • 4-5

 **ibaizabal**
IKASTOLA

- Konfidantzan, ikastola -

idazkaritza@ibaizabalikastola.eus
Tel.: 946 215 877
www.ibaizabalikastola.eus

HAUR HEZKUNTZAKO GOI MAILAKO ZIKLOA

Aurrematrikulazioa:
Ekainaren 3tik 14ra

Matrikulazio epea:
Uztailaren 11tik 17ra



“Modan arriskuak hartzen dituzten emakumeen estiloa gustatzen zait”

Moda dibertsioagaz lotzen du llescasek; kolore biziak eta distirak nabarmentzen dira bere diseinuetan

DURANGO • JONE GUENETXEA

80ko hamarkadako emakumeen ausardiak inspiratzen du Maialen llescas diseinatzailea. Moda munduan lehenengo pausoak ematen dabil Goienkalen duen estudioan. Ilusioa darie bere berbei.

Zelan hasi zinen moda munduan?

Gizarte Hezkuntza ikasi nuen, Donostian. Baina ama jostuna izateak asko eragin dit. Beti ikusi izan dut dendetarako lanean, bere modeloak egiten. Bere trajeak egiten ikusi dut ispiluaren aurrean. Amaren armairuan dagoen ia dena berak eskuz egindakoa da. Txikitatik zaletasun hori izan dut. Modaren munduan interesa piztu zitzaidan eta aldizkariak eta liburuak ere irakurtzen nituen.

Orain moda ikasten ari zara.

Pertsonekin lan egiteko bokazioa nuenez, Gizarte Hezkuntza ikasi nuen. Etxean ere karrera bat ikasteko esan zidaten, eta horrela egin nuen, Donostian. Urtebete egon nintzen arlo horretan lanean, eta oso pozik nengoan. Baina pentsatu nuen moda ere gustuko nuela eta orduan ikasi ezik, aurrerago oso zaila izango zela. Inedi Design School eskolan izena eman nuen, Bilbon. Nire lekuaren bila nembilen mundu horretan, eta amak ere asko animatu ninduen. Aurtengoa laugarren urtea da.

Zelan sortu duzu Dossis Designs?

Amak egindako arropagaz jantzita ikusten genuen jendea kalean ahizpak eta biok. Sormen lan horri izen bat jarri behar geniola pentsatu genuen. Dossisek 'Dos sisters' esan gura du. Ama niri beharra ematen hasi zen. Alkandorak egiten eta txaketak kustomizatzen hasi nintzen.

“**Amak egindako arropagaz jantzita ikusten genuen jendea kalean ahizpak eta biok**”

Dossis Designsen logoa ere sortu genuen. Amaia Zaitetik egin zuen. **Ahizparen ezkontza inflexio puntu bat izan zen zure moda ibilbidean.**

Janiregaz bere ezkontza soinekoa aukeratzera joan ginen ama eta biok. Ahizpari ez zitzaion bakar bat ere gustatzen. "Diseinatu dezagun guk nire ezkontzako soinekoa", esan zidan Janirek. Amak ez zuen ordura arte horrelako jantzirik egin ezkongaiatzat. Ezkontza horretarako, hirurok geure jantziak diseinatu behar genituela ikusi zuten ahizparen lagunek. Instagramen argazkiak jartzen hasi nintzen. Jendeari gustatu egin zitzaion eta euren ezkontzetarako jantziak

eskatzen hasi ziren. Etxean hasi ginen diseinatzen. Barregarria da. Jendea zetorrenean, aita eta txakurra kanpora botatzen genituen (barrez). Jendeari tratua gustatzen zitzaion eta pozik irteten ziren. Orain, estudioa dut Goienkalen. **Jendea ideia zehatz batez ala aholku eske joaten zaizue?** Nik estilo nahiko alternatiboa dau-

kat, batzuetan retroa. Garrantzi handia ematen diot ehunari. Ideia finko bat duenari beste aukera batzuk ematea da nire asmoa. Lehen, jendeak eskatzen zuena egiten nuen, gustuko ez nituen gauzak ere bai. Orain ere egiten ditut enkarguzko lanak. Baina etxean lan egiten genuenean ez nuen identitaterik. Nik beste estilo bat nuen.

Modista legez lan egiten nuen, eta ez diseinatzaile moduan. Horrek frustrazio handia sortu zidan. Uda horretan Madrilera joan nintzen, ekintzaileen terapia ikastaro batera, *La casita de Wendyra*, Ines Aguilargaz, eta asko lagundu zidaten. Berriro ere nire lekua bilatzen nembilen. Arlo profesionalean han bideratu ninduten.





**Maialen Illescas
Muñoz**
Moda diseinatzailea
Durango | 1990

Zure identitateari utsita, aurkezpena egin zenuen Bilbon. Zelako esperientzia izan zen?

Fashion Kultur Bilbao aukera handia izan zen. Zalao Ferreiro ikaskidea zen eta kolekzio bat aurkeztuko proposamena egin zidaten. Nire esentzia jendaurrean erakusteko aukera moduan hartu nuen eta oso esperientzia polita izan zen.

'Shine on' izena jarri zenion kolekzioari. Zergatik?

Gizarte Hezkuntzak eta modak badutela lotura konturatu naiz. Modak badu alde terapeutiko bat. Emakume batek duen segurtasun falta gainditu eta ahalduntzeko tresna bat izan daiteke. Horregatik jarri nion *Shine on* (distiratu) izena Bilboko desfileari.

Sortzaile moduan, zein da zure inspirazio iturria?

80ko hamarkadako moda izugarri gustatzen zait. Sasoi hartako emakumeak ahaldunduta ikusten ditut. Egun batean koloretako leggingsak jartzen zituzten, sorbaldakoak, ileak gura zituzten moduan... Orain, oster, atzera egin dugula ematen du, eta modan zurrungoak garela. Horregatik, diseinatzen dudana guztia 80ko hamarkadako izan ez arren, espiritu horregaz lan egiten dut. Horregatik, estudioa datozenei jolastea proposatzen diet eta sekula ere bururatu ez zaizkien arropak probatzea. Askotan sorpresa asko

“**Fashion Kultur Bilbao aukera handia izan da nire esentzia jendaurrean erakusteko**”


izaten dira. Gauza berriak probatzea proposatzen diet. Eta jendeak errepikatu egiten du, gustatzen zaien seinale.

Jendeak baloratzen du zuen lana?

Alde batetik, orain modan dago jantziak neurri egitea. Hala ere, oraindik badago jendea landutako arropa gura duena, baina merke. Baina ez da oihala bakarrik ordaintzen, jakina. Prozesu guztia hartu behar da kontuan. Gainera, neurri egindako jantziak oihal onekin egin behar dira, denean igartzen delako.

Zein moda gustatzen zaizu?

Modan arriskuak hartzen dituzten emakumeen estiloa gustatzen zait. "Hori da itxura", esango du beste batek, baina niri ikaragarri gustatzen zait. Agian argazki bat aterako diot. Nik amamaren alkandorak hartzen ditut niretzat. Zorrotzegi epaitzen dugu geure burua, arau larregi ditugu modan, eta niri zorramena gustatzen zait.



'Kaleko Divak' proiektua, Eloi Landiagaz batera

Bilduma honek arkitekto durangarraren koadroetan inspiratuta dauden sei 'look' aurkeztuko ditu

DURANGO • J.G.

Illescas moda ikasketa amaierako proiektuan buru-belarri sartuta dago. Ekainaren 27an, *Kaleko Divak* kapsula kolekzioan sei look aurkeztuko ditu Olabeagan. "Eloi Landiaren margoetan inspiratzen naiz. Bera arkitektoa eta artista da. Pertsona geometrikoak agertzen diren koadroak sortu ditu. Margo horien zatiak hartu ditut eta nire koloreekin estanpatua sortu dut". *Kaleko Divak* izena jarri dio proiektuari. "Divoak ere izan daitezke". Proiektuaren editoriala egiten ari da Illescas, eta Eloi Landia irtengo da argazki horietan.

Bilboko erakusleihoan

Diseinuaren munduan hasten ari diren hiru diseinatzailei Bilboko Ertzilla kaleko erakusleiho batean euren kolekzioak jartzeko aukera eman die YIMBY Bilboko ekimenak. Maialen Illescas durangarra izan da horietako bat, Nerea Aperribai eta Zalao Ferreiro diseinatzaile gazteekin batera. Astebetez bere diseinuak espazio horretan ikusgai izan dira. "Sekula ez nuen horrelako erakusleiorik jarri. Denetarik eraman nuen ingurua atontzeko, nire bikotekidearen laguntzagaz". Aukera ederra izan du durangarrak bere lanak jendaurrean jartzeko.



Bidegorria N-634aren "alternatiba" izango dela esan du Rementeriak

Durangotik Zornotzarako bidegorria egingo dutela esan du EAJren Aldundiko hautagaiak



Rementeria alkategaiekin, Durangon. Behean, Zornotzako eta Atxondoko irudiak.



EAJ • MARKEL ONAINDIA

EAJk eguaztenean Durangon egini agerraldian, Unai Rementeria ahaldu nagusi eta hautagaiak esan zuen azken urteetan hainbat proiektu garatu dituztela mugikortasun arloan; esaterako, Gere-

diaga-Elorrio autobidea. Aurrera begira, Durangotik Zornotzarako bidegorria egingo dutela esan zuen, eta N-634 errepidearen "alternatiba" izango dela. "Bidegorriak lasaitasuna eta segurtasuna eskainiko ditu", adierazi zuen.

Bere iritziz, "bizikletaren kultura" sustatu behar da. Tren zerbitzu "lehiakorrago" bat jarrita, autoa gutxiago erabiliko dela ere uste du.

Bestalde, garraio publikoan txartel bakarra izateko lan egingo dutela nabarmendu zuen Rementeriak: "Txartel bakarrera heldu behar dugu, hori da gure etorkizuna".

Rementeriaz batera, Durangoko, Elorrioko eta Iurretako alkategaiek egon ziren, besteak beste.

Arratsaldean Zornotzan eman zuen mitina ahaldu nagusiak, Andoni Agirrebeitia alkategaia ere bertan zela. Agirrebeitiak esan zuen "Zornotza orekatu" baten alde lanean jarraituko dutela. Gazteen lan munduratzeari lagunduko dutela, parekidetasuna sustatuko dutela... Nagusien Nafarroa Zentroaren erreforma integrala egingo dutela azaldu zuen Agirrebeitiak.

Elorrioren eta Atxondon

Elorrioko EAJk Oidor-Berriozabalbeitia eta Pulla-Azkarreta guneak jarduera industriale-rako berreskuratzea plazaratu du. Gainera, Argiñetan museo proiektua sortzearen alde agertu da, eta hirigune historikorako plana aplikatuko duela dio. Agintea lortuz gero, udalean "gardentasun estrategia bat" martxan jarriko duela dio.

Atxondon, herriko eskolara joateko eskailera mekanikoak ipiniko dituela promes egin du EAJk. Xabier Azkarate hautagaiak esan du "hurbileko gobernu" osatu gura dutela.

Durangon Porrujaia sortzeko asmoa iragarri du EAJk, merkatu plaza dinamizatzeko

Ezkurdiko parkea birgaitzea eta trenbideko trazatuan bide berdea sortzea ere proposatu du Mireia Elkoroiribek



Merkatu plazaren bueltan eman zuten jeltzaleek euren ideien berri.

EAJ • M.O.

Udalan gobernatzen segituz gero, urtero Porrujaia egingo duela esan du EAJk, Kataluniako calçotadaren eran. Azaroko bigarren asteburuan izango litzateke. Mireia Elkoroiribek azaldu du porrua Durangoko jatorrizko produktua dela, nahiz eta askok jakin ez. Zapatuan porru pintxoak eta porrusalda banatu zituzten jeltzaleek, bide batez herritarrak informatzeko.

Porrujaia merkatu plaza dinamizatzeko ekintzetako bat izango litzateke. Izan ere, merkatu plazaren "birmoldaketa integrala" proposatzen du EAJk, eta ardatzetako bat ostalaritza eta aisialdia sustatzeko esparruak edukitzea da. Hiru eremutan banatu dute jeltzaleek proiektua: ohiko sale-

rosketa gunea, ostalaritza-aisialdi esparrua, eta haur zein gazteak jolasteko gune estalia.

TAO sistema Landako eta Muruetatorre auzoetara hedatzeko konpromisoa hartu du Elkoroiribek

Bestalde, EAJk hainbat proposamen helarazi ditu prentsara. Ezkurdiko parkea birgaitzeko eta bertan gune estali bat egiteko beharra ikusten du. Gainera, trenbideko trazatua bide berde bihurtzea ere gura du. TAO sistema Landako eta Muruetatorre auzoetara hedatzeko konpromisoa hartu du Mireia Elkoroiribe alkategaiek.

Sozialistek mugikortasun plan bat landu gura dute, "kerik eta trafikorik bako" Durango bat lortzeko

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Industria, enplegua, jasangarritasuna eta gizarte ekintza. Ardatz horiek oinarri dituen herri programa landu du Durangoko PSE-EEK datozen udal hauteskundeei begira, eta hori aurrera eramateko, "Durangorako talderik onena" aurkeztu dute, asteon. Bertan izan dira Patxi Lopez PSOeko Politika Federaleko idazkaria eta lehendakari ohia, eta Txema Oleaga senataria.

"Eskualdeko buru izango den Durango lortu gura dugu, bilakera izango duena, beste ezer baino

lehen pertsonengan pentsatuko duena, jasangarria eta berdintasunean oinarritutakoa", Jessica Ruiz alkategai sozialistaren berbetan. Ildo horretan, Durangon dauden 1.247 langabeen alde lan egingo dutela azaldu du eta merkataritza dinamizatzeko ekintzak bultzatuko dituztela.

Era berean, mugikortasun plan bat landu gura du PSE-EEK, "kerik eta trafikorik bako Durango" lortzea helburu dutela. Horregaz lotuta, "ezinbesteko" ikusten du Urki-Hegoalde errepidea amaitzea eta disuasio-aparkalekuak



Besteak beste, sozialistek Espainiako Barne ministro izandako Alfredo Perez Rubalcaba izan zuten gogoan ekitaldian.

sortzea; lau proposatu dituzte: Tabiran, Larrasoloetan, Olleria kalean eta Landako etorbidea amaitzen den inguruan. Nagusiei konpainia egiteko egitasmoa lan-

duko dutela gaineratu du Ruizek, eta berdintasun arloan eta genero biolentziagaz lotuta egindako lanagaz jarraituko dutela, "eredu bihurtu gaituen lan horregaz".

Merkatu Plazan Jesus Mari Pedrosa izenagaz erabilera anitzeko espazioa sortzea ere proposatu dute, "memoria historikoan lanean jarraitzeko".

Trenbideko lurretan hamar guneko "arnasgunea" egiteko proposamena

Durangoko EH Bilduk Martxoak 31 parkea egitea proposatu du bere programa "parte-hartzailean"

EH BILDU • ARITZ MALDONADO

Martxoak 31 parkea "Durangok behar duen birika berdea" izango dela esan du Ima Garrastatxu Durangoko EH Bilduren alkategaiak. Egitekoa den galdeketagaz lotu du proposamena: "Lur horietarako proiektatuta dauden bost dorreen proposamenari ezetza ematen badiote durangarrek galdeketa, hauxe izango da gure proposamena". Parkeak hamar gune edukiko lituzke; besteak beste, kultur ekimenak egiteko anfiteatro bat, umeentzako jolasgune estali bat, baso txiki bat, frontoi estali eta irekia, eta gimnasiarako makinak. Guztira, 300 proposamen

bildu ditu koalizioak lau urteetan zehar jaso dituen proposamen eta hausnarketak kontuan hartuta. EH Bilduren beste proposamene-tako bat auzoetako zinegotziaren figura sortzea da. Eraikin publikoak konpondu eta "herritarren eskura" jartzea ere proposatu du koalizio abertzaleak; Correoseko eraikina eta San Faustoko Kapitana baserria, esaterako.

Airearen kutsadura

Airearen kutsadurari aurre egiteko, hainbat konpromiso aurkeztu ditu asteon. Adibidez, herri mailako koordinazio mahai bat sortzea gura dute.



Ima Garrastatxu, Martxoaren 31ko parkearen proposamenagaz.

Abadiñon Zientzia Parkea egitea proposatu du Durangaldeko EH Bilduk

Elorrioko, Atxondoko, Berrizko eta Zaldibarko EH Bilduko kideek hurrengo legealdirako euren proposamenak aurkezteko ekitaldiak egin dituzte azken aste honetan

EH BILDU • A.M./M.Z

"Kalitatezko enplegua" sortu eta "prekariatetik ihes" egiteko asmoz, Durangaldeko EH Bilduk Zientzia Parke bat egin gura du Abadiñon. Asteon ohar bidez jakitera eman dutenez, parkeak Durangaldeko ekoizpen sektoreak dibertsifikatzea ekarriko luke eta Hezkuntza Sailagaz eta inguruko hezkuntza zentroekin hitzarmenak egiteko aukera emango luke.

EH Bilduko berbetan, parkeak Durangaldeko ekoizpen sektoreak dibertsifikatuko lituzke

Bestalde, Elorrioko EH Bilduk ere ekitaldia egin zuen, herriko plazan, astelehenean. Alkate aukeratzeko badute, "bestelako" kudeaketa ereduagaz jarraituko duela iragarri zuen Idoia Buruagak. Horrek duen garrantzia ere nabarmendu zuen. "Lau urte hauetan oinarri bat ezarri dugu udal politikagintzan; oinarri hori benetan ezartzeko, lau urte ez dira nahikoa; beste lau urte behar dira", adierazi zuen.

Joan zen barikuan, EH Bilduk kanpaina hasierako hainbat ekitaldi egin zituen eskualdean. Atxondon, esaterako, Ane Intxausti EH Bilduko alkategaia era "garden eta parte-hartzailean" lan egingo dutela adierazi zuen, herritarrei udaletxeko ateak zabalduta. Berrizen ere aldaketa posible dela



Goian, Buruaga Elorrioko alkatea. Erdian, Atxondoko EH Bildu. Behean, Zaldibarko EH Bildu.



sinetsita daudela azpimarratu zuen Josu Albizuri alkategaia. "Udalak eskaintzen dituen bitartekoak erabilia, posible da bestelako herri proiektu bat martxan jartzea", esan zuen.

Bestalde, Zaldibarren, hurrengo legealdirako proiektu nagusia kultur etxea eraikitzea izango dela jakitera eman zuen Eneritz Azpitarte EH Bilduko hautagaia.

Julian Rios: "Durangarren kezkak erdigunean jarri ditugu"

HERRIAREN ESKUBIDEA • J.D.

Airearen kalitatea, 24 orduko pediatria zerbitzua, nagusien

auzo-taxia... amaitzera doan legegintzaldian "durangarren kezkak agenda politikoaren



Andra Marian egin zuten hauteskunde kanpainari hasiera eman zion ekitaldia.

erdigunera" ekarri dituztela nabarmendu zuen Herriaren Eskubidea koalizioak Julian Rios alkategaia Andra Marian egingako ekitaldian. Bestalde, Neskut Rodríguez zerrendakideak Durango "feminista" eta "berde" baten aldeko aldarria egin zuen.

Maria Oñate zerrendakideak, Miguel Urban Podemoseko europarlamentariak eta Europako hauteskundeetarako hautagaia den Ana Gonzalezek ere parte hartu zuten ekitaldian.

Europak hartu beharreko bideaz aritu zen Urban, eta Durango adibide moduan jarri zuen: "Salviniren Europa beharrean, besarkadak emango dituen Europa gura dugu, Durangok denoi erakutsi digun moduan", adierazi zuen alderdi moreko europarlamentariak.

EAJk industrialdeei buruz duen jarrera kritikatu du Elorrioko Herriaren Eskubideak

HERRIAREN ESKUBIDEA • J.D.

Degradatutako gunen industrialak errehabilitatzeaz buruz EAJk hedabideetan esandakoak kritikatu ditu Elorrioko Herriaren Eskubideak ohar batean. Gaiarekiko "ezjankintasuna" eta "zinismo apur bat" leporatu dizkie. Esaterako, Herriaren Eskubidearen ustez, Pulla-Azkarretarako asmoek ez dakarte gunen baten errehabilitazioa, "Elorrioren geratzen den gunen emankor gutxieta" baten suntsiketa" baino. Gune hori "EAJren obsesio" bihurtu dela diote.



Belaunaldien arteko zentro bat proposatu dute Berrizen

ELKARREKIN PODEMOS • J.D.

Adin guztietako herritarrei zabalik egongo litzatekeen belaunaldien arteko zentro bat egitea da Berrizen Elkarrekin Podemos koalizioaren proposamen bat. "Jakintza eta balioak elkartrukatzeko balioko luke eta belaunaldi guztietako jendea eroso sentituko litzateke", adierazi dute ohar batean.

Berbarok 30. urteurrena ospatuko du ekainaren 1ean, eta Durangoko euskaltzale guztiak gonbidatu ditu jaialdira

"30 urte dira Durangon euskaraz bizitzeko aukera sortzeko ametsagaz Berbaroa jaio zenetik", gogoratu dute euskara elkarteko kideek



goko euskaltzale guztiak gonbidatu gura ditugu egun horretako jaira", esan dute mezuan.

12:30ean bertso-poteo musikatuz hasiko dute jaialdia. 14:30ean argazki erakusketak ikus-

Ekainaren 1ean borobilduko dute urteurrena, egun osoko jaialdi batez

gai egongo da Plateruenean. Handik ordu erdira bazkaria hasiko da bertan; txartelak hilaren 29ra arte daude salgai, Berbaroren bulegoan, Plateruenean eta Anttonio's tabernan. Bazkalostean ekitaldia egingo dute eta arratsaldean poteoan jarraituko dute euskaltzaleek.

Orain bost urteko jaialdian hainbat lagun batu ziren bazkaltzeko.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Berbaro euskara elkarteja jaio zenetik 30 urte bete dira aurten, eta ospakizunetan murgilduta dabilta.

"Aurtengoa Berbarorentzat urte berezia da, 30 urte baitira Durangon euskaraz bizitzeko aukera sortzeko

ametsagaz Berbaroa jaio zenetik", azaldu dute euskara elkarteko kideek. Ekainaren 1ean borobilduko

dute urteurrena, egun osoko jaialdi batez, eta herriko euskaltzale guztiak batu gura dituzte. "Duran-

Algaraklown taldeak ospitaleetan egiten duen lana zabaldu du Ibaizabal ikastolako ikasle talde batek

Pailazo taldeak Donostiako ospitaleetan egiten du ekarpena, gaixorik dauden umeei eta euren familiei begira; 'www.teaming.net' atarian martxan duen diru bilketa kanpainaren berri eman dute Durangoko ikastetxeko lau ikasleek

DURANGO • M.O.

Ibaizabal ikastolako Haur Hezkuntzako zikloko ikasleek hezkuntza arloagaz lotutako elkarten inguruko lanak jorratu dituzte ziklo amaierako proiektuan. Berbaro, Urtxintxa, Jesuiten Etxea, Garaitza eta Algaraklown izan dira aztertutako elkarteak. Azken talde horrek Donostiako ospitaleetan egiten du ekarpena, gaixorik dauden umeei eta euren familiei bisitak eginez, eta www.teaming.net atarian martxan duen diru bilketaren berri eman dute Ibaizabaleko ikasleek.

Jone Rubio, Irati Ormaetxea, Oihane Ozamiz eta Mirari Urizar ikasleek landu dute azterketa. "Algaraklown proiektua ezagututakoan ikusi ditugun beharrez nagusiak alde ekonomikoa eta eza-



Umorearen bidez, gaixorik dauden umeen emozioak askatzea da Algaraklown pailazo elkartearen helburua.

gutzera emateko baliabideak dira", azaldu dute ikasleek. Horregatik zabaldu dute prentsara elkartearen kanpaina, eta parte hartzeko eskatu dute; hilero euro bat emateko elkartasun kanpaina da.

"Parte hartzeko eskatu dute; hilero euro bat emateko elkartasun kanpaina da"

"Hurrei lagungarri egiten zaie ospitaleko espaziotik ihes egiteko"

Klown taldearen lana baloratu dute ikasleek. "Hurrei lagungarria egiten zaie ospitaleko espaziotik ihes egiteko, eta jolasagaz eta irriagaz batera gaixotasunari aurre egiteko tresna da", esan dute.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko maiatzaren 17a
17. urtea - 763. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

2015 **Bikam**
Bikam
Bikam

PEFC
Produktu hori
kontrolatutako
inbentarioaren
egia da, birziklatu
da eta bere kalitatea
transkorreraren
azpitik dago.
www.pefc.es

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Durango Txartelagaz egindako erosketetan %5eko deskontu zuzena egingo dute

DURANGO • M.O.

Dendak Bai merkatari elkar-teak bezeroei begirako ekintza bat iragarri du maiatzerako. Durango Txartelagaz egindako erosketan guztietan %5eko deskontu zuzena egingo dute elkar-tearen barruko dendetan. Maiatzaren 31ra arte iraungo du eskaintza bereziak. Deskontua aplikatuko den erosketan bakoitzaren gehienezko balioa 500 eurokoa izango dela azaldu dute. Deskontua era automatikoki aplikatuko dute komertzioetan. Aurreko urteetan ere egin dute kanpaina, eta, harrera ona ikusita, errepikatzea erabaki dute.

Txartela egin gura dutenek elkar-tearen bulegoan, dendetan zein Nafarroako Rural Kutxan eskatu ahal dute.

Geu Be Eguna ospatuko dute Plateruenean, bazkari batez

DURANGO • M.O.

Hauteskundeak direla-eta, aurturteroko Durangaldeko Ezgaitasun Eguna ez egitea erabaki dute. Aniztasun funtzionala dutenen aldeko eguna izan ohi da eta euren egoerak ikusgai egiteko, ekintzak prestatzen dituzte. Hala ere, eta formatu txikiagoan bada ere, Geu Be Eguna ospatuko dute maiatzaren 25ean, Jose Alfaro kideak kontatu duenez. Plateruena kafe antzokian bazkari baten bueltan elkartuko dira.

Alfaren esanetan, gura duenak ateak zabalik ditu Geu Beren bazkarira joateko. Gainera, egunean zehar beste zenbait ekintza egingo dituzte, datozen egunetan iragarriko dituztenak.

Durango egingo dituzte Euskal Herriko mugimendu feministaren jardunaldiak

Azaroaren 1etik 3ra bitartean gauzatuko dute feministen topaketa, eta uste dute "historikoa" izango dela



Landako Gunearen kanpoaldean eman zuten jardunaldiak iragartzeko prentsurrekoa, zapatuan.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Durango izango dira Euskal Herriko mugimendu feministaren bosgarren jardunaldiak. Azaroaren 1etik 3ra bitartean gauzatuko dituzte jardunaldiak, eta zapatuan egin zuten aurkezpena, deialdia zabalitzen hasteko. Mugimenduaren baitako adostasunak berresteko,

"Martxoaren 8ko grebak oinarri sendoak, eskaera zehatzak eta mobilizazio gaitasun nabarmena erakutsi ditu"

berriak eraikitze eta hurrengo urteetarako estrategia zehazteko helburua dute.

Feministek uste dute topaketa "historikoa" izango direla, azken urteetako testuinguru kontuan izanda. "Martxoaren 8ko grebak oinarri sendoak, eskaera zehatzak

"Antolatuta eta kementsu gaude hurrengo urratsa emateko", azaldu zuten feministek

eta mobilizazio gaitasun nabarmena erakutsi ditu eta, horregatik, antolatuta eta kementsu gaude hurrengo urratsa emateko", azaldu zuen zapatuan Cony Carranzak, mugimenduaren bozeramailetako batek. Hamar urte igaro dira

lehen jardunaldi feministak egin zituztenetik, 1.300 emakumeren partaidetzagaz, Portugaleten. Ordutik, testuinguru aldatu egin dela adierazi dute emakumeek. "Erronkei Euskal Herriko kolektibo feministen indarragaz aurre egiteko prest gaude, mugimenduak jardunaldien diseinuan izango duen parte-hartze aktiboari esker", adierazi zuen Carranzak. Hurrengo hilabeteetan zehar, tailerrak eta berbaldiak adostuko dituzte prozesu baten bidez.

'Salda badago', lema

Jardunaldien lema *Salda badago* izango da, eta inflexio puntu bat izan gura dutela esan du Garazi Diezek: "Euskal Herriko mugimendu feministan osagai eta lehengai

asko daude, su motelean denbora luzez prestatutakoak".

"Neofaxismoaren aurka"

Bestalde, jardunaldiekin, "neofaxismoaren, matxismoaren eta arrazismoaren aurrerakadaren kontra" duten estrategia sendotzeko asmoa dute mugimendu femi-

Bertakoak zein migratzaileak direnen arteko elkarlanean jardutera deitu dute

nistako kideek. Deialdi zabala egin dute, bertakoak zein migratzaileak diren emakumeen arteko elkarlanean jardutera.

Julián Ríos
Durangoko alkategaia

Neskutz Rodríguez
Zerrendako bigarren hautagaia

AURRERA DURANGO!

HERRIAREN ESKUBIDEA SQ-2D

elkarrekin PODEMOS.

Independienteak

equo ezker anitza

Bizkaiko metalgintzan bost greba egunetara deitu dute, lan hitzarmen duin bat eskatzeko

Maiatzaren 23an eta ekainaren 6an, 7an, 20an eta 21ean deitu dituzte metaleko langileak kalera irtetera



ELA, CCOO, LAB eta UGT sindikatuek Bizkaiko Metaleko Hitzarmenerako plataforma bateratua erregistratu dute Lan Harremanen Kontseiluan. LAB

DURANGALDEA • AITZIBER BASAURI
Bost greba egunetara deitu dute Bizkaiko metalgintzako enpreetan, lan hitzarmen duin bat eskatzeko. Maiatzaren 23an eta ekainaren 6an, 7an, 20an eta 21ean deitu dituzte metaleko langileak kalera irtetera. Deialdia babesteko, ELA, LAB, CCOO, UGT, ESK eta CGT sindikatuek elkarretaratze bateratura deitu dute Durangon, maiatzaren 22an. Andra Mariko elizpean izango da, 19:00etan.

ELA, CCOO, LAB eta UGT sindikatuek Bizkaiko Metaleko Hitzar-

menerako plataforma bateratua erregistratu dute Lan Harremanen Kontseiluan. Eskaera hauek batu dituzte, besteak beste: soldata igoera, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako atzerakinen ordainketa, subrogazio eskubidea, lan-erreformaren aurkako blindajea, zortzi orduko la-

Sindikatuaren esanetan, Bizkaiko metalgintzako lan hitzarmena 2011tik dago eguneratu barik

Deialdia babesteko, elkarretaratze bateratura deitu dute Durangon, maiatzaren 22an

naldi murrizketa eta aldi baterako kontratuak murrizteko eta genero berdintasuna areagotzeko neurriak hartzea. Lan osasuna lehenatasuna izan dadin, aurrerapausoak ematea ere eskatu dute.

Sindikatuak salatu dutenez, negoziazio mahaian "ez da inolako aurrerapausorik eman", eta lan hitzarmena 2011tik dago eguneratu barik. Hitzarmen propioa duten enpresetako langileak ere deitu dituzte grebara, "etorkizuna bermatzeko eta hobekuntzak lortzeko".

LABen ustez, "sektoreko hitzarmen duin baten bitartez bakarrik berma daiteke aberastasunaren banaketa". CCOOko metaleko eskualdeko ordezkariak elkarretaratzea egin zuten Iurretan, astelehenean, greba deialdia babesteko.

Garaiko pilotalekua zarratzeko proiektuaren lizitazioa hasi dute

GARAI • MARKEL ONAINDIA

Herriko pilotalekua albotik zarratzeko egitasmoa dauka udalak. Horixe da aurtengo udal aurrekontuko inbertsiorik handienetakoa. Pilotan jokatzeaz aparte, herriko hainbat ekintzatarako ere erabiltzen den azpiegitura da. Iaz teiltatua konpondu zuten, eta aurten itxi egingo dute pilotalekua eskumako aldetik, herritarrentzat erosoago bihurtzeko. Proiektuaren lizitazioa hasi dute, eta beharrezko pauso administratiiboak emanda, obra udazkenean hastea aurreikusten dute.

Egitasmorako, 119.000 euroko aurrekontua daukate. Beste 10.000 dituzte proiektua diseinatzeko, eta Aldundiak 25.000 euroko laguntza emango du.

Maiatzaren 23an zabalduko dute Amillena, Arrazolako eskolako taberna

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Datorren eguenetik aurrera, Arrazolako eskola zaharrak atek zabalik izango ditu berriro. Maiatzaren 23an, 18:00etan, egingo dute Amillena Arrazolako Bentako irekiera ekitaldia.

Amillenako kideek jakitera eman dutenez, taberna, jate-txea eta denda txiki bat izango dituen gunea herritarren eta bisitarien elkargune izatea dute helburu.

Durangaireak airea hobetzeko dekalogo bat proposatu die alderdiei

Nabarmentzekoa da aire garbiaren aldeko plataformak kalitatea neurtzeko indize gogorragoak ezartzea eskatu duela

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Udal hauteskundearen harira, neurri batzuekin konpromisoa hartzea exijitu du Durangairea plataformak. "Marketinga kea da, ekintza zehatzekin batera ez badator", esan dute oharrean. Hamar neurrien artean, nabarmentzekoa da kalitatearen indize gogorragoak ezartzea proposatzen duela Durangaireak.

Horrez gainera, udalekin eta elkarrekin eskualdeko mahai bat sortzea eskatu dute. Industria arloan, enpresen zerrenda bat osatzea eta horien ekintzak erregulatzeko ordenantzak garatzea da dekalogoko beste neurri bat.

Herritarrak informatzeko eta euren iritzia ezagutzeko bideak zabaltea ere eskatu du plataformak.



Durangaireak deituta, hainbat elkarretaratze egin dituzte Durangon.

Ekainaren 12an egingo dituzte ofizial udalak Eskuagatxen dituen lurak

IZURTZA • J.D.

Aldundiak eta udalak agindutako ikerketek azaleratu dutenez, Izurtzak 53 hektareako lur zati bat du Eskuagatx mendian eta Urkiola Parke Naturalaren barruan. Lur zati horren mugaketa ofizial egiteko ekitaldiak ekainaren 12an eta 19an izango direla jakin du, asteon, udalak. Aldundiko eta udaleko ordezkariak eta perimetroko lur-jabe pribatuak batuko dira. Denak muga berriekin ados daudela ofizialki jasotzea da helburua.



Gerra zibilean hildakoak gogoratuko dituzte zapatuan egingo den ekitaldian

ZORNOTZA • J.D.

Zornoza elkarteak gerra zibilean hildakoak gogoratzeko ekitaldia antolatzen du urtero, eta aurtengoa zapatua honetan izango da, 12:30ean. Zelaieta parkean dagoen plakaren aurrean batuko dira hildakoak gogoratzeko. Herriko dantzariak saioa eskainiko dute eta, horren ostean, ekimeneko sustatzaileek zein bestelako hizlariak berba batzuk esango dituzte. Lore eskaintza bategaz amaituko dute ekitaldia. Aurten beste ekimen bat ere antolatu dute Zornoza elkartekoek. Atzo, Burdin Hesia museoko zuzendari Aitor Miñambresen berbaldia eskaini zuen.



Lau egunean dastatu ahalko dira pintxoak, goizean zein arratsaldean.

Zornotzako taberna eta jatetxeek 30 pintxo aurkeztuko dituzte Jan Alai txapelketan

Lehiaketarako beren-beregi egindako pintxoak dastatzeko eta euretako onena bozkatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek, maiatzaren 20tik ekainaren 2ra. Gero, ekainaren 2ko sari banaketa ekitaldian hainbat sari banatuko dituzte Zelaieta Zentroan

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Zornotzako Jan Alai pintxo lehiaketak zortzigarren aldia egingo du maiatzaren 30etik ekainaren 2ra. Herriko 30 establezimenduk parte hartuko dute, bakoitzak bere pintxoagaz.

Lehiaketan parte hartzeko sistema urteroko bera da. Establezi-

menduek bost egunean banatuko dituzte pintxoak. Parte hartu ahal izateko, gutxienez 15 pintxo dastatu behar dira, gune bakoitzeko hiru. Gero, txartel bat bete beharko dute, hiru pintxorik onenak zeintzuk izan diren eta zerbitzaririk profesionalena nor izan den adieraziz. Txartela betetzen dutenak 500

euroko sariaren zozketan sartuko dira. Sari banaketa ekitaldia ekainaren 2an egingo dute, Zelaieta Zentroan. Hamar pintxorik onenen zerrenda ere osatuko dute. Iraunkor taldeak tokiko produktuekin betetako hiru saski zozkatuko ditu, gutxienez 15 pintxo dastatu dituzten parte-hartzaileen artean.

Pintxo lehiaketako ordutegia honako hau da: maiatzaren 30ean, 18:00etatik 21:00etara; maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean, 12:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 21:00eta-

Lehiaketan parte hartu ahal izateko, gune bakoitzeko hiru pintxo dastatu behar dira gutxienez

ra; ekainaren 2an, 12:00etatik 15:00etara. Lehiaketan sartu barik, taberna eta jatetxeek ordutegi horretatik kanpora ere eskaini ahalko dituzte pintxoak.



Mikel Elizaran

Iurretako ikaslea Mekatronikako Goi Mailako Heziketa Zikloa ikasten hasi da. Ikus dezagun zerk bultzatu duen Mondragon Goi Eskolako Mekatronikako Zikloa egitera:

Zein ikasketa egin zenituen gaztaroan eta zein ibilbide profesional eduki duzu? Aurretik zine eta bideo errealizazioa eta 3D animazioa ikasi nituen. Hala ere, ez nuen horretan lanik egin, eta lehenik supermerkatu bateko hainbat lanpostutan egon nintzen urtebetez. Gero, biltegi batean egon nintzen, ia bi urtez.

Lanean zeundenean, uste zenuen zure ikasketak nahikoak izango zirela etorkizunerako, ala bazenekien lehenago edo geroago zure formakuntza osatu edo aktualizatu beharko zenuela? Hiru urte lanean egon eta gero, eta reflex kamerarako urperako karkasa erosi eta gero, lana utzi eta kamerarekin urpekaritzan saiakerak egiten eta lagun surflariei argazkiak egiten aritu nintzen, eta hobby moduan gehiago gustatzen zitzaidala konturatu nintzen profesio moduan baino. Beraz, lagun batek proposatuta, eta lanean aire konpresoreekin ibilia nintzenez, mekatronikan sartzera animatu nintzen, ikasketa dualak egiteko intentzioarekin.

Badira 6 hilabete edo gehiago zikloa ikasten hasi zinela. Zer moduz ikusten duzu zeure burua ikasle gisa? Ikasi nahi duzulako ikasten duzunean, igartzen da, adiago egoen zara, zeure helburuak argiago dituzu, eta lanetik eta aurretik ikasitakotik zenbat gogoratzen duzun konturatzaren zara. Gainera, zenbat alditan lan praktikoren batean tratatzen zarenean "pikatu" egiten zara, lortu arte. Ez da zerbait egin behar zenuelako ikasten zenueneko berdina.

Zein iritzi duzu Mondragon Goi Eskola Politeknikoak aplikatzen duen hezkuntza metodologia praktikoari buruz? Klasean emandako teoriari zentzua aurkitzen laguntzen dizu. Erronka bakar-rako, zenbat ikasgaitan ikasitakoa sartzan denez, sarritan, azken zatian, lehenengoetan egindako hanka-sartzeak ikusten laguntzen dizu. Eta lan praktikoetan, azken zatia, zuk muntatutako sisteman irakasleak akatsak aurkitzen dituenekoia zuk bilatu eta konpontzeko, lan mundura begira oso lagungarria iruditzen zait.

Datorren urtera begira, heziketa zikloko 2. Mailan DUAL formatua egitea pentsatzen ari al zara? Duala izan da hasieratik nire helburua. Oinarri bat izanda, lan praktikotik gehiago ikasten dela iruditzen zait, eta dualak urte oso batez praktikan egoteko aukera ematen dit. Irratian zenbat ikasleri entzundakoaren ostean eta aurrean enpresetara bisitekin eta bigarren mailan dualean dabilzan ikasleek esandakoaren ostean, gogo handia dut.

Eta bukatzeko, epe luzera zein espektatiba ireki dizkizu helduaroan egindako formakuntza esperientzia honek? Euskadin industria asko dago, eta mekatronika eta antzekoak ikasi dituzten lagunak sekula ez ditut lan barik ikusi. Lan aldaketak izan dituzten arren, badakit lan aukeretako asko bidaiztearekin zerikusia dutela, eta, nire kasuan, adibidez, ingelesa landu beharko dudala.

Ate Irekien Jardunaldia

Maiatzak 25 (larunbata) 11:00

Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.gmhz@mondragon.edu
943 71 21 91

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP



“Haize berria behar du Gure Izarrakek, lan egiteko gogoz dauden gazteena”

25 urte pasatu dira Berrizen Gure Izarrak emakume taldea sortu zutenetik; asteburuan urteurren jaia ospatuko dute

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Herriko emakumeen bizi-kalitatea hobetu eta hauen parte-hartzea sustatzeko asmoz, 1994an Gure Izarrak elkarte sortu zuten Berrizen. Asteburu honetan elkartearen 25. urteurrena ospatuko dute.

Gure Izarrak elkartearen 25. urteurren jaia ospatuko duzue. Zer antolatatu duzue astebururako?

Caridad Molina: Erakusketa txiki bat jarri dugu, 25 urte hauetan ze lan egin dugun ikusi dezaten herritarrek. Bestalde, zapatuan poteo txiki bat eta bazkari herrikoia egingo ditugu. Gero, Mari-bel Salasen bakarrizketa egongo da Kultur Etxean.

Marije Gezala: Urteurren jaia urtero ospatzen dugu, baina aurtengoa berezia izatea gura dugu. Horregatik, denei dei egiten die-

Urteurren jaia urtero ospatzen dugu, baina aurtengoa berezia izatea gura dugu

gu parte hartzeko: bazkideei, tailerretako irakasleei, herritarrei...

Nolako elkarte da Gure Izarrak?

M.G.: Elkarte zabala da, urte osoan zehar herritar guztientzat hainbat tailer egiten dituen, eta herrian antolatzen diren ekimenetan parte hartzen duena. Egun 150 bazkide garen arren, urte osoan zehar askoz ere jende gehiagok parte hartzen du gugaz ekintzetan.

Elkartearen helburu nagusia herriko emakumeak batzea eta elkar laguntzea da

Ana Mari Guiribitain.: Azken finean, herritar guztientzat zabalik da goen elkarte zabala da gurea.

C.M.: Herritarrek kalera irten eta hartu-emanak sortzeko toki aproposa da Gure Izarrak.

Zein da elkartearen helburua?

Gema Oiarzabal: Elkartearen helburu nagusia herriko emakumeak batzea eta elkar laguntzea da.

C.M.: Gure asmoa elkarregaz egotea da, momentu on bat pasatzea. Familia bat gara. Sortu genuenetik, emakumeak batzeko gunea da. Sasoi hartan bazeuden emakumeak kalera irteten ez zirenak, eta Gure Izarrak esker



Ezkerretik hasita, Ana Mari Guiribitain, Marije Gezala, Gema Oiarzabal eta Caridad Molina

zenbait ekintzatan parte hartzen hasi zirenak. Beste batzuk ezkutuan etortzen ziren; ez zuten gura senarrek bertan zeudela jakiterik.

Elkarteko sortzaileetako batzuk zarete. Nola bururatu zitzaizuen elkarte sortzea?

C.M.: Udalak bultzatutako ekimen bat izan zen. Orain 26 urte gobernuan zeudenek tailer batzuk antolatu zituzten herriko

“

Hasiera gogorra izan zen, lehenengotan emakume gutxi geunden eta”

—

emakumeak batzeko. Ikastaroetara etortzen zen teknikariak, Ikernek, emakumeak batzeko elkarte bat sortu behar genuela esaten zigun. Begiak zabaldu zizkigun, eta burua berotu elkarte sortzeko. Izugarri lagundu zigun, gainera.

Nolakoak izan ziren hasierako urte haiek?

C.M.: Hasiera nahiko gogorra izan zen, lehenengotan emakume gutxi geunden eta. Baina, apurka-apurka, hazten joan ginen eta orain 150 bazkide gara. Hasierako urteetan neure etxea zen elkartearen egoitza, eta kafea hartzeko batzen ginen, besteak beste. Orain, ostera, Berrizko anbulatorio zaharrean daukagu egoitza, eta urte guztian zehar hainbat ikastaro eskaintzen dizkiegu berriztarrei.

Nolako etorkizuna ikusten diozue Gure Izarrak elkarteari?

M.G.: Esango nuke ikastaroek duten arrakastari esker egin duela aurrera elkartea, bestelako ekintzetan betikoak egoten gara eta. Hala ere, Gure Izarrak etorkizun oparoa duela ezin daitete zalantzan jarri.

C.M.: 25 urte bete ditu elkartea eta badu etorkizuna, baina bultzada bat behar dugula uste dut. Haize berria behar du Gure Izarrak, lan egiteko gogoz dauden gazteena.

A. G.: Gure Izarrak herrian eskaintzen dituen hainbat gauza ez ditu beste elkarte batek eskaintzen. Beraz, ikastaroak antolatzen ditugun bitartean, eta herritarren eskaria daukagun heinean, argi dugu elkartea aurrera jarraituko duela.

Hasita daude N-634 errepide nagusia zeharkale bihurtuko duten lanak

Berrantolaketa lanok 1.557.000 euroko aurrekontua dute eta zortzi hilabete iraungo dute



Ibarretxe kultur etxearen alboan hasi dira lanean langileak.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Ibarretxe kultur etxearen alboan hasi dira lanean, eta, aurreikuspenak betetzen badira, datorren urtarrilean amaituko dituzte. N-634 errepide nagusia zeharkale bihurtuko dute Iurretan, 1.557.000 euroko inbertsioa eginda. Zatorik handienari udalak berak egingo dio aurre: 922.505 euro jarriko ditu; Bizkaiko Foru Aldundiak, bestalde, 634.460 euro ipiniko ditu.

Biribilgune bi egingo dituzte, herriko bideekin lotura hobetzeko:

Askondo kalearen parean bata, herrigunera edo kultur etxearen alboko aparkalekura sartzeko aukera emango duena. Bestea, Durangoko Francisco Ibarra kalearen parean egongo da, eta Goiuriara joateko eta Durangora sartzeko aukera emango du. Albo bakoitzean, 2,5

Lanak izango diren 700 metroan bost zebra-bide goratu eta semaforoak jarriko dituzte

metroko zabalerako espaloia eta bidegorria egokituko dituzte, eta lanak izango diren 700 metroko zati horretan, bost zebra-bide goratu eta semaforoak jarriko dituzte.

Euskararen arloan egin den lana baloratzeko aukera dute herritarrek

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Herrian euskararen egoera zein den aztertuko du udalak, eta herritarrek aukera izango dute arlo horretan eginiko lana baloratzeko: udaleko webgunean jarritako galdetegiari erantzun dakioke, maiatzaren 29ra arte. Bestalde, uda ostean, Euskararen Aholku Batzordean saio bi egingo dira euskararen erabilerrari buruzko talde hausnarketa egiteko. Horrez gainera, udalak Euskararen Plan Estrategiko berria landuko du 2019an.

Kainabera elkarteak esku artean dituen proiektuak ezagutzeko aukera egongo da maiatzaren 29an, Iturrin

Elorriko gobernuz kanpoko erakundeak berbaldi zikloa antolatu du. Egun, hamabi bat lagun dabilta erakundean lanean



Kainaberako kideen talde argazkia.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Maiatzagaz batera, Kainabera gobernuz kanpoko erakundeak antolatzen duen berbaldi zikloa heldu da. Eguaztenean, Latinoamerikako hainbat herraldetan bizi duten egoera nahasia berbagai hartuta eman zioten hasiera berbaldiei. Aurtengo ziklorako, Kainaberako kideek hiru hitzaldi antolatu dituzte, eta, azkenengoan, Kainaberak esku artean dituen proiektuen berri emango dute. "Urte osoan zehar hainbat ekimen antola-

tzen ditugu eta hainbat proiektutan parte hartzen dugu; beraz, bertaratzen direnei horren berri emango diegu", adierazi du Iñaki Agiriano Kainaberako kideak. Berbaldia 19:00etan hasiko da, Iturrin.

Egun hamabi bat lagun dabilta erakundean modu aktiboan, eta hainbat proiektu ditu Kolonbian eta Nikaraguan. Horrez gainera, herritarrek sentsibilizatzeko asmoz, hainbat ekimen antolatzen ditu.

Hilaren 15ean, Victor Pozas EHuko irakasleak berbaldia eskainiko du Iturri Kultur Etxean

Kainaberako hitzaldiaren aurretik, hilaren 15ean, Victor Pozas EHuko irakaslearen eskutik, Brasilgo, Venezuelako eta Nikaraguako errealitateak ezagutzeko aukera izango dute Iturri Kultur Etxera doazen herritarrek.

Egun hamabi bat lagun dabilta modu aktiboan erakundean, eta hainbat proiektu ditu atzerrian

Ugarteko bideak trafikoaren zati bat herrigunetik ateratzea gura dute

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Toloto erreka berbideratzeko lanak amaitu ostean, Ugarteko bidea egiten hasiko dira Elorrioren. Trafikoaren zati bat herrigunetik atera eta Ibarrako zubiari jarraitzen ematea izango da errepide horren helburua.

Lehen fase batean, Miotarantz doan biribilgunean hasi eta Montorrara helduko da bide berria. Horrek beste alternatiba bat emango die Errebonbilo kaletik doazen

Bideari bizikletentzako bidegorri bat gehituko diote, beste mugikortasun eredu bat bultzatzeko

autoei. Hartara, Errebonbilo kalea oinezkoentzat egokituko dute. Bestalde, bide berriari bizikletentzako bidegorri bat gehituko diote, herrian beste mugikortasun eredu bat sustatzeko asmoz.

70eko hamarkadako anbulantzia bat ikusgai klasikoaren kontzentrazioan

Zapatu goizean egingo dute, Clasicas Mallabiak antolatuta

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Hamabostaldi Kulturalaren barruan, auto eta motor klasikoaren kontzentrazioa egingo dute zapatuan, 09:00etatik 14:00etara. Iaz 40

auto eta 7 motor batu zituzten. Antolatzaileen esanetan, aurtun 70eko hamarkadako anbulantzia bat egongo da ikusgai, Bizkaiko Dyak utzita. Dodge 3700 markakoa da.



Anbulantzia Dodge 3700 markakoa da.

ZORNOTZA
CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL
LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUA

DATAK

- Aurrematrikula ekainaren 3tik 14ra
- Matrikula uztailaren 11tik 17ra

ESKAINITZA OSOA

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industriala

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

ESKAINITZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

- Langile/langabetuentzat ikastaroak

946 730 251 | info@fpzornotza.com | www.fpzornotza.com | @fpzornotza

Logos: ARNEAN, AENOR, Kudeaketa eta Enpresen Kudeaketa 2005, IONET, Fp ELIZKADI & ANBIDE HEZIKETA, EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO, HEZIKETA SAIA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Eskola inguruko urbanizazio proposamena onartu dute

ZALDIBAR • A.M.

Eskola eremuaren inguruko urbanizazio proiekturako proposamena behin betiko onartu dute maiatzeko plenoan. Eneritz Azpitarte alkatea pozik agertu zen harturiko erabakiagaz, izan ere, aho batez onartu zuten proposamena. "Pozik gaude, adostasuneko proiektu bat izan delako, denbora gutxian eta alegaziorik jaso barik, gainera". EAJ eta PSEko kideek ere alde bozkatu zuten. Trenaren diseinua

ETS izan zen 2018ko azaroko proposamena onartu ez zuen erakunde bakarra

kontuan hartuta, aldaketa bat egin behar izan zuten planean. "Kaltetuekin berba egin behar zen". Azpitarteren esanetan, ETS izan zen 2018ko azaroan onartutako planaren aurka agertu zen erakunde bakarra.



Kartel lehiaketara ez da inor aurkeztu eta epea maiatzaren 24ra arte luzatu dute

OTXANDIO • J.D.

Jai Batzordeak antolatzen duen Santamaña jaietako kartel lehiaketara ez dute proposamenik aurkeztu. Ondorioz, epea maiatzaren 24ra arte luzatzea erabaki dute. Irabazleak lagun birentzako bazkaria edo afaria irabaziko du, jaiak laguntzen dituen Otxandioko jatetxe batean.

Lanak formatu digitalean eta A3 tamainan aurkeztu behar dira. Ondoko testu biak derrigor agertu behar dira: 'Otxandioko Jaiak 2019' eta 'Uztailaren 17tik 21era'. Lanak amaitzean, honako helbidera bidali daitezke: jaiatzrodea@gmail.com. Otxandioko udaletxean ere aurkeztu daitezke.

Mañariko ezpatadantzarien taldea plazara irten da, Aste Kulturala aitzakia hartuta

Orain urte bi sortutako taldean parte-hartzaile berriak sartu dira eta indarberrituta irten dira herriko plazara



Joan zen zapatuan ezpatadantzari taldeak ateratako argazkia.

MAÑARIA • JONE GUENETXEA

Orain urte bi, neska talde batek Dantzari dantza ikasi zituen Mañariko jaietarako. Horixe izan zen taldearen debuta. Publikoaren txalo artean zapaldu zuten herriko plaza. Jende faltaren ondorioz, urte bian taldeak ez du aurrera egin. Par-

"Gure asmoa Ezpatadantzari Egunerako dantzak prestatzea zen", dio Leire Huertak

taide berriekin ezpatadantzariak indarberrituta irten ziren Mañariko plazara, joan zen zapatuan.

Leire Huerta da talde horretara oraintsu sartu den dantzarietako bat. "Dantzari dantza Durangaldeko Ezpatadantzari Egunerako prestatzea zen gure asmoa. Data aldatu dutenez, azkenean, Aste Kulturean dantza egitea pentsatu genuen, eta itzela izan da herriko plazan dantza egitea. Oso urduri nengoen", dio Huertak. Joan zen zapatuan izan zen mañariarra-

Taldea urtarrilean hasi zen entseatzen, asteen birritan hitzordua jarrita

ren debuta. "Txikitan, 10 urtera arte, Tronperrin ibili nintzen dantzan, baina ez nituen dantza hauek ikasi", gogoratu du Hontza museo-ko presidentek. Taldea urtarrilean hasi zen entseatzen, hitzordua as-

Dantzari dantza osoa ikasi dute, Augusto Alves irakasle dutela

tean birritan jarrita. Dantzari dantza osoa ikasi dute, Augusto Alves irakasle dutela. "Augustogaz oso eskertuta gaude. Pazientzia itzela izan du gugaz", aitortu du dantzariak.

Kontzertuak eta euskal ezkontza asteburuan Abadiñoako santrokazetan

Gaur Pelax eta Izaki Gardenak taldeen kontzertua egongo da; bihar Esne Beltza, Not Scientist eta State Alertak joko dute

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Santo Domingo egunean, Gerbas kalejiran udaletxera eraman eta dantzarien azken entseguagaz eman zieten hasiera San Trokaz jaietako Abadiñoan.

Orduz geroztik, jai giroa izan da nagusi Zelaietan. San Trokaz egunean, esaterako, jendetza batu zen eguerdi aldera udaletxe inguruan,

eta abadiñarrek egun osoko jaiagaz ospatu zuten herriko jai eguna.

Astebururako ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Gaur Pelax eta Izaki Gardenak taldeen kontzertuak egongo dira, eta bihar Esne Beltza, Not Scientist eta State Alertarenak. Horrez gain, lau urterik behin egiten duten euskal ezkontza ospatuko dute, bihar.



Talde Batuakeko dantzariak San Trokaz egunean



Hareek denporak!

Txikitatik artista sena erakutsi zuten bertsolariak

Txikitatik artista sena erakutsi zuten bertsolari batzuk ageri dira argazkian: Miren Amuriza berriztarra, Eñaut Uruburu eta Xabier Solaguren abadiñarrak, Jone Uri, Arrate Illaro eta Itxaso Paia algortarrak... Gaur egun ere plazarik plaza dabilta batzuk, bertsolaritzaren lehen lerroan.

2003ko ekaineko argazkia da honakoa, ANBOTOren 74. alean argitaratua. Bizkaiko Umeen eta Gaztetxoeren Bertsolari Txapel-

ketako finalekoa da, Bilbon. 14 urtera arteko mailan Amurizak jantzi zuen txapela, eta Uruburu geratu zen bigarren.

Hain justu, maiatzaren 25ean Abadiñon jokatu da aurtengo eskolarreko finala, 11:30ean. Gainera, Bizkaiko taldekako finala ere izango da, arratsaldean, 17:00etan. Durangaldeko hiru talde dira finalistak: Miotako bidelapurak, Tronperrieta, eta Koipelustre's. **M.O.**

Durangaldea asteen

Seme-alabak jaiotzeagatik diru-laguntzak eskatzeko epea hasi dute Zornotzan

Zornotza | Seme-alabak jaiotzeagatik diru-laguntzak eskatzeko epea hasi dute Zornotzan. Eskariak udaleko erregistroan aurkeztu beharko dira, seme-alaba jaio denetik edo adopzioaren ebazpena jakinarazten denetik hiru hilabeteko epean. Aurten 400 euro emango dituzte, iaz baino 100 euro gehiago. Ordenantza berri honen helburua gastuen zati bat estaltzea da, familiek, ahal den neurrian, seme-alaba gehiago izan ditzaten.

Astelehenaz geroztik, herriko zenbait gune asfaltatzen dabilta Elorrion

Elorrio | Aste hasieratik, eta eguraldi ona lagun dutela, herriko zenbait gune asfaltatzen dabilta Elorrion. Lehenengo fasean, Nizeto Urkizuko aparkalekua asfaltatu dute. Behin hori eginda, Gaztañetan, Lekeriketan, Gazetan, Aidazun, Berriozabaletan, Igurian, Berrion, Zenitan eta Miotan hainbat errepede konponduko dituztela esan du udalak.

Urtebeteen udal gehien babesa jaso du 24 orduko pediatriaren aldeko plataformak

Durangaldea | Urtebete pasatu da Durangaldean 24 orduko pediatriaren aldeko plataforma sortu zutenetik. Plataformako kideek jakitera eman dutenez, Abadiñoko, Berrizko, Elorrioko, Izurtzako, Mañariko eta Zaldibarko udalek plataformak aurkeztutako mozioaren alde egin dute. Mozioaren kontra egin duen udal bakarra Durangokoa izan dela azaldu dute. Bestalde, euren helburua lortu arte "borrokan" jarraituko dutela esan dute.

Iritzia

Laster bidean, laster etxean!

Oiartzun, Larrabetzu, Berriozar, Araia, Oñati eta Ondarroatik igaro ondoren, aurten Arbizu eta Lakuntzako herrietako kaleetan zehar egingo da Lasterbidean, maiatzaren 19an.

Korrikaren kirol eremutik jaiotako herri ekimena dugu Lasterbidean, urtez urte eta herrialdez herrialde euskal errepresaliatu politikoen eta beraien gertuko eskubideen alde elkartasun pausoak batzen dituen nazio elkartasun lasterketa.

Zoritxarrez, oraindik asko dira etxetik urrun jarraitzen dutenak, eta, horretarako, elkartasun pausoak gehitzen jarraitu nahi du Lasterbideanek, guztiak etxean izan arte. Beraz, egingo diren lasterketa labur herrikoian zein lasterketa luzean korrika egitera animatu nahi zaitugu, denon artean pauso txikiak emanez etxerako bidea posible egiteko pausoa emateko.

Lasterketarako aurrez izena emateko aukera ostiralera arte egongo da www.lasterbidean.eus web orrialdean, eta egunean bertan ere eman ahal izango da izena.

Lasterketetz gain, zumba beroketa, kalejira, ohiko bazkari herrikoia, zirku erakustaldia, herri kirolak eta kontzertuak ere izango dira eguna borobiltzeko.

Durangaldeko Oihana Azkorbebeitia Urizar, Zigor Iturrieta Ruiz, Garazi Sampedro Arando, Aitor Mimenza Castillo, Irene Loizate Sarrionandia, Markel Urigoitia Zamakona, June Arbeo Sarrugarte, Eneko Zarrabeitia Salterain, Arkaitz Iturriagaetxebarria Altuna eta Erlantz Zaldunbide Legarra korrikalariek ekimenarekin bat egin dute, eta zu ere zapatilak aldean lasterketako irteeran espero zaitugu, presoen etxeratzearen alde.

Laster bidean, laster etxean!

Iban Uribetxebarria Legorburu (Lasterbideanen izenean)

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

merkataritza
gida sarean

anboto.org/gida



Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)



Esne Beltza

MUSIKA

ABADIÑO :: maiatzak 18

Musikaz gozatzeko aukera eskainiko dute santrokazek asteburuan

Musikaz gozatutako giroa izango dute Abadiñon asteburuan. Gaur, Izaki Gardenak eta Pelax taldeek eskainiko dute kontzertua, 22:30ean, probalekuan. Zapatuan, bestalde, Xabi Solanok gidatutako Esne Beltza-ren trikiti eta hip-hop doinuak nagusituko dira. Hala ere, aurretik, Not Scientist eta State Alertak joko dute. Txanportan da hitzordua, 21:30ean.



Ibon Belandia

BAKARRIZKETA
DURANGO :: Maiatzak 23

La Noche Boludaren eskutik, maiatzaren 23an Ibon Belandia musikaria etorriko da Durangora. Musika eta umorea uztartuz egindako proposamena eskainiko du bilbotarrak Plateruena kafe antzokian, 20:00etan.

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Maiatzaren 17an

ABADIÑO San Trokaz
'Comediante' familia ikuskizuna, 17:00etan, Zeletabe kalean (euria bada, frontoian).
Orkresta elektrotarangagaz kalejira, 18:30ean.
San Trokaz Elite Eskuz Binakako Txapelketaren finala, 10:30ean, Tornosolo trinketea.
Kontzertua: Izaki Gardenak+Pelax, 22:30ean, probalekuan.

BERRIZ zirkua
'Gure Zirkua' Euskal Herriko lehen karpa ibiltaria, 18:00etan eta 20:30ean, Berrizburun.

DURANGO lehiaketa
Za'ping film laburren lehiaketa, Plateruenean. Gai banaketa eta izen-ematea, 18:00etan. Lanak aurkezteko, maiatzaren 19ko 12:00ak arte. Sari banaketa, 18:00etan. Zapaburu Gazte Konpartsak antolatuta.

DURANGO musika
Muted + Atlantida + Niketz + Kohatu + Mi Dulce Geisha, 22:30ean, Plateruena kafe antzokian.

IURRETA ipuinak
'Around the world' (Kids&Us) 17:30ean, Ibarretxe kultur etxean. 3-7 urte bitarteko umeei zuzenduta.

ZORNOTZA musika
Jose Luis Nieto pianista, 20:00etan, Boroako San Pedro baselizan. Eleizetan egitaraua.

Maiatzaren 18an

ABADIÑO San Trokaz
San Trokaz Eskuz Binakako pilota goxoa txapelketako finalaurrekoak, 10:30ean, Tornosolon.
Euskal ezkontza: ezkongaeikin kalejira, 12:30ean. Gero, **ezkontza** San Trokaz plazan.
Paella erraldoia, 14:30ean, Ferialeku plazan (euria bada, probalekuan). Jai Batzordeak ogia eta postrea banatuko ditu.
Umeendako jolasak, 15:00etatik 19:00etara, Ferialeku plazan.
Eskuz Binakako San Trokaz Txapelketa, haurren finala, 18:00etan, frontoian. Ondoren, kadeteen eta 22 urtez azpikoen finalak.
Kontzertua: Not Scientist + State Alerta +Esne Beltza, 21:30ean, Txanporta plazan.

BERRIZ zirkua
'Gure Zirkua' Euskal Herriko lehen karpa ibiltaria, 17:00etan eta 19:30ean, Berrizburun.

BERRIZ ibilaldia
'Auzoz auzo, ... pausuz pausuz' presoen eskubideen aldeko martxa, 08:30ean, Olakueta plazatik irtenda. Hiru ordu eta erdiko ibilaldia. Andikoan, txorizo egosia eta edaria.

ELORRIO ikastaroa
Defentsa pertsonala (wing tsun). Kiroldegian, 10:00etatik 14:00etara. Emakumeentzat. Izena emateko: 625 95 83 73/ elorriokofke@gmail.com.

IURRETA antzerkia
'Idiota' (Txalo Produzioak), 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

ZORNOTZA musika
Musikeneko Hazkunde Hirukotea, 20:00etan, Dudeako San Migel baselizan. Eleizetan.

Maiatzaren 19an

ABADIÑO San Trokaz
Abentura parkea eta tailerrak eta jokoak (3-6 urte), 10:30etik 14:30era, Ferialeku plazan (euria bada, frontoian).
Haur eta gaztetxoendako bizikleta martxa, 11:00etan, Txanporta plazan. Ondoren, **haurrentzako bizikleta ginkana**.
Pedalik bako bizikleta proba, 12:30ean.
San Trokaz Eskuz Binakako pilota goxoa txapelketaren finala, 16:00etan, Trinketea.
Kalejira eta dantzaldia Talde Batuak eta Txanbolin taldeetako dantzari eta txistulariekin, 16:00etan, Txanporta plazan.
Txokolatada, 19:00etan.
Gerbasia agurra, 20:00etan.

Elikadura eta landare azoka

MAÑARIA

AZOKA • XXIII. Elikadura eta Landare Azoka zabalduko dute domekan, 10:00etan, plazan. Alluitz Naturaren eskutik, umeentzako tailerrak ere egongo dira, 11:00etan. 12:00etan, herriko dantzariak saioa eskainiko dute. Bestalde, gaur, koroak kontzertua eskainiko du Andra Maria elizan, 19:00etan, maiatz kulturalaren barruan.



Maiatzak 17 - 20:00etan
BATERAFEST
Kontzertua

Ekainak 7 - 22:00etan
GARI & MALDANBERA + ERABATERA
Kontzertua

www.plateruena.eus

PLATERUENA
Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A DURANGO
Tel.: 946 030 300
jatetxea@plateruena.net



Rio de Oro jaialdia ospatuko dute, Tabiran

ELKARTASUNA | Rio de Oro jaialdia ospatuko dute, zapatuan, Durangoko Tabira auzoan. Zazpigarren urtez antolatuko du jaia Rio de Oro elkarteak, Saharako egoerari buruz jendea sensibilizatzeko eta elkartearen lana gizarteratzeko. Era berean, Durangaldeko hainbat herritarrek urte guztian emandako laguntza eskertzeko modua ere bada, elkartekoek azaldu dutenez.

Adin guztietarako ekitaldiak batu dituzte osatutako egitarauan, 11:00etan hasi eta 02:00ak bitartean. Besteak beste, paella lehiaketa antolatuko dute, eta, eguraldia lagun izanez gero, 500-600 bat lagunek parte hartzea espero dute Rio de Oro elkartekoek. Prestatutako ekitaldi guztietan parte hartzeko gonbita egin dute.

Umeentzako puzgarri eta tailerrak, 11:00etatik 13:00etara.

Paella lehiaketa, 10:00etatik 14:30era. Durangoko Tabira-etxean, eta Arkarazo tabernan, eta lurretako Gauargin eman daiteke izena.

Bingoa, 16:30ean hasita.

'Sakatu' Elektrotxaranga, Tabirako tabernetatik ibiliko da, 17:30ean.

Kontzertuak: Sangre de Mono+Guda Dantza+Dientes de Luna+Maskaradun DJ-a, 21:00etatik 02:00etara (euria bada, Sorgiñolan).

ABADIÑO erakusketa 'Errefuxiatuak. Gaur zu, bihar ni?' Txanporta kultur etxean. Hemendik Harantz elkarteak antolatuta.

BERRIZ zirkua 'Gure Zirkua' Euskal Herriko lehen karpa ibiltaria, 17:00etan eta 19:30ean, Berrizburun.

ZORNOTZA antzerkia **ZuGanNi: Gazteen antzerki jaialdia,** 17:00etan, Zornotza Aretoan.

Maiatzaren 21ean

ELORRIO ikastaroa **Gorputz adimena lantzeko,** ekainaren 11ra arte, martitzenero, 18:00etatik 20:00etara, Iturri kultur etxean.

IURRETA izena ematea **Goiuriko Amak Harora antolatutako txangorako** izena emateko azken eguna: nagusien egoitzan edo 94 681 81 76 telefono zenbakian. Maiatzaren 25ean doaz.

Maiatzaren 22an

ELORRIO hitzaldia **Errefuxiatuen egoera Grezian,** 19:00etan, Iturri kultur etxean. Kainaberak antolatuta.

Maiatzaren 23an

DURANGO musika **Dj Masha,** 22:00etan. Txoria Nuen Maite tabernan.



Begoña Olavide & Javier Bergia domekan, 12:15ean, Garitondoko San Isidro basilizan (Zornotza).

Maiatzaren 24an

BERRIZ musika **360° HZuzenean: Caboverde,** 22:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO musika **Combo kontzertua,** 18:00etan, Plateruenan.

ELORRIO antzerkia **'7ak bat. Gaiztoetan gaiztoenak' (Atx Teatro),** 20:30ean, Arriolan.

Maiatzaren 26ra arte

IURRETA izena ematea **1959. urtean jaiotako enospakizuna,** ekainaren 1ean. Kantabriara joango dira ospatzera eta izena emateko azken eguna da maiatzaren 26a. Harremanetan jartzeko: 639 520 094 (Kontxi) telefonoan.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA
• **La pequeña Suiza**
barikua 17: 22:00
domeka 19: 19:00

:: Durango ZUGAZA
• **Hellboy**
barikua 17: 19:30/22:00
zapatua 18: 17:00/19:30/22:30
domeka 19: 18:00/20:30
astelehena 20: 18:30/21:00
martitzena 21: 20:00
eguzatena 22: 20:00

• **Casi imposible**
barikua 17: 19:30/22:00
zapatua 18: 19:30/22:30
domeka 19: 18:00/20:30
astelehena 20: 18:30/21:00
martitzena 21: 20:00
eguzatena 22: 20:00

• **Un hombre fiel**
barikua 17: 19:30/22:00
zapatua 18: 18:30/20:30/22:30
domeka 19: 18:45/20:30
astelehena 20: 18:30/21:00
martitzena 21: 20:00
eguzatena 22: 20:00

• **Pokemon: detective pikachu**
zapatua 18: 17:00
domeka 19: 16:30

:: Elorrio ARRIOLA
• **Dolor y Gloria**
zapatua 18: 22:00
domeka 19: 20:00
astelehena 20: 20:00

:: Zornotza ARETOA
• **Los hermanos sisters**
barikua 17: 20:15
zapatua 18: 19:30/22:00
astelehena 20: 20:15

• **La rata pirata y otras aventuras para crecer**
zapatua 18: 17:00

“Zaila da gurean kamera taldeak ikustea, are gutxiago guk egiten dugunaren modukoa, jazz edo swing doinuetakoa”

Saxo eta klarineteekin osaturiko laukotea da Karama; Bartolome Ertzilla musika eskolan sortua, AEBetako sustraietako musika hedatzeko helburua dute



Leire Rodriguez, Markel Mardaras, Itziar Castrillo eta Eneko Astigarraga.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Urte luzez musika klasikoa jo ostean, doinu askeagoak jorrazteko gogoz, Karama laukotea sortu dute Leire Rodriguezek, Markel Mardarasek, Itziar Castrillok eta Eneko Astigarragak Ameriketako Estatu Batuetako sustraietan sakontzeko helburuagaz. Charlie Parker eta Benn Goldson musikarien piezak jota disfrutatzen dute adibidez, eta artista horien musika ezagutzen ez dutenei doinu hauek hurbildu gura dizkiete, euren moduko gazte jendearekin batez ere. Kontzertu bi gehiago eskainiko dituzte, oraingoz. Bata gaur, maiatzak 17, Zaldibarren, eta bestea, ekainaren 14an, Abadiñon.

Nolatan sortu zenuten taldea?

Eneko Astigarraga: Lau saxo mota daude, altua, sopranoa, baritonoa eta tenorea. Itziarrek aspalditik gura zuen laukote bat saxoekin, elkarregaz jota. Horrela egin dugu orain hiru bat urtetik hona, eta aurten saxo tenorea kendu, eta Leire batu

da taldera, klarineteagaz. Horrek egiten gaitu berezi.

Leire Rodriguez: Orain arte beste talde bat egon da, baina aurten deitu egin didate.

Pasa den astean jo zenuten lehen kontzertua. Zergatik pieza horiek?

E.A.: Gu hirurok Klasikoko Erdi Mailako zikloa egitetik gatoz. Orain Jazza ikasteko aukera ere badago, baina berria da. Eta talde honen helburua, klasikoaz gainera, beste zerbait jotzea da.

Markel Mardaras: Musika garaikidea

“**Gurea esperimentu bat ere bada; ez dira sarritan ikusten klarineteak saxo taldeetan**”

jo gura dugu, eta beste musika mota batzuk, musika klasikoaz gainera beste batzuk ere badaudela ikusi dezan jendeak.

L.R.: Esperimentu bat ere bada. Ez dira ikusten klarineteak saxo taldeetan, eta gogotsu gaude publikoaren harrera ikusteko.

E.A.: Orokorrean, zaila da inguru hauetan kamera taldeak ikustea; are gehiago, klasikoa barik, jazz edo swing doinuak jotzen dituen kamera talde bat.

Ameriketako Estatu Batuen musika herrikoian sakontzea da taldearen helburuetako bat. Zergatik?

M.M.: Estiloen izenetan sartu barik, Charlie Parkerrek-eta jorrazten zizutzen doinuetan sakontzen dugu, sustraietara jota.

Hortik datorkizue doinu horiekiko zaletasuna ala eskolan landutakoaren ondorioa da?

L.R.: Nik lehenengoz jo izan dut horrelako estilo batean. Entzun izan ditut inoiz, eskolako BartSax taldeari entzunda adibidez, baina

nik neuk ez dut orain arte horrelako estilorik jo.

M.M.: Niretzat alderantziz izan da. Hasieran denok hasten gara klasikoagaz, baina gero Jose etorri zen, eta kontserbatorio eta jazza erakusten hasi zitzaigun. Badira urte batzuk beragaz nagoela. BartSax taldean ere estilo hau jorrazten dugu.

E.A.: Hamaika urte daramatzagu BartSaxegaz. Big Band bat da hori, hau da, talde handi bat.

Urte asko daramatzazue musika eskolan, beraz.

“**Estiloen izenetan sartu barik, Charlie Parkerrek-eta jorrazten zizutzen doinuetan sakontzen dugu, sustraietara jota**”

E.A.: Urte asko egin ditugu musika eskolan, eta beti jo izan dugu klasikoa. Beraz, orain doinu hauek jotzea erronka bat da guretzat. Musika ezberdina da.

L.R.: Esan bezala, esperimentu bat ere bada, eta ondo dago horrelako erronkak jartzea zeure buruari, gehiago ikasteko.

M.M.: Nik, adibidez, Enekok eta Leirek baino askoz ere gutxiago jo dut klasikoa. Gehiago jorraztu ditut estilo hauek, baina niretzat ere erronka bat da eurekin horrelako musika jotzea.

E.A.: Gehiago jotzerakoan, azentuak eta abar askoz ere hobeto zehazten ditu.

L.R.: Erritmoak ere barneratua goak ditu, inprobisatzeko erraztasuna du...

Zer da musikan gehien gustatzen zaizuen?

E.A.: Ni oso gustura nago honegaz. Sekula jo ez dudana estilo batez nabil, gauza berriak ikasten, eta gure artean ondo konpontzen gara. Hori ere positiboa da. Formakuntza akademikoa nahiko zurruna da, baina musikarekiko zaletasuna ez dut inoiz galduko.

M.M.: Aparte, egunerokotasunerako baliagarriak zaizkigun gauzak ikasten ari gara. Zure kabuz, zuretzat jo dezakezun gauza bat da. Musika ikasterakoan, zuretzat geratzen den zerbait da, talde bat eduki zein ez.

L.R.: Oso teknikoa da formakuntza guztia. Nik iaz amaitu nuen, eta sekulako liberazioa izan da aurtengoa (barrez)

Ez dira doinurik ohikoena gazteen artean.

E.A.: Hemen ez dago ohiturarik horrelako kontzertuetara joateko. Beharbada, gure musika ez delako errazena. Rocka edo orain modan dagoen reggaetoia errazagoak dira entzuteko.

M.M.: Gureak ahalegin bat eskatzen du, eta suposatzen dut horregatik ez direla horrelako kontzertu batera joango hasiera batean.

L.R.: Entzun ahala, gero eta gogo koago diren doinuak dira hauek. Ni Jam Sessionen bitartez hurbildu nintzen musika honetara, eta hortik datorkit interesa.

Nola gonbidatuko zenituzkete gazteak zuen kontzertuetara joateko?

M.M.: Gure kontzertu bat aukera ona izan daiteke gauza berriak probatzeko.

L.R.: Musika ezberdinak entzuteak aberastu egiten gaitu.

Adin tarte guztientzako magia eskaintzen du Gure Zirkuaren ikuskizunak; Berrizen egongo da gozagarri, asteburu bitan

Maiatzaren 26ra arte hamaika emanaldi eskainiko ditu Gure Zirkua euskal zirku ibiltariak Berrizen; aurreko denboraldian 25.000 ikusle erakarri zituen

ZIRKUA • ARITZ MALDONADO

Gure Zirkuaren bigarren denboraldia Oiartzunen (Gipuzkoa) arrakastaz estreinatu ostean, Berrizen egingo du bigarren geldialdia. Astelenean heldu zen konboia, Berrizburu aurreko aparkalekuan karpa altxatzeko asmoagaz. Bertan egongo dira maiatzaren 26ra arte. Zirkuaren magia dakar proiektuak beragaz, malabareekin, pailazoe-kin eta akrobatekin. Gogotsu datoz gainera, Oiartzunen eskainitako hamaika emanaldietako sarre- ra guztiak saldu ostean; guztira, 2.750 lagun bildu dituzte egunotan. "Zalantzak eta kezak genituen bigarren denboraldi honetarako, ea berrikuntzek-eta funtzionatuko zuten, baina baietz ikusi dugu", azaldu du Iker Galartza aktoreak. Poxpolo pailazoa da bera zirkuaren. Sei hilabete iraungo duen bira dute aurretik. "Lehenengoan baino bi hile gehiago egingo ditugu errepi- dean. Guretzat ere erronka bat da".

Bigarren denboraldi honetako erronkarik handiena iaz zirku ikuskizuna ikusi barik geratu ziren ikusleengana heltzea da. Horrez gainera, zirkua Berrizen eskaintzeak badu bere azalpena. "Hainbat bider egon naiz bertan aktore lez, eta oso ondo tratatu naute beti". Horrez gainera, Lea Artibaiko jendea joatea erraztuko du karpa Berrizen egoteak. "Aurreko denboraldian egon ezin izan ginen lekuak lehenetsi ditugu; adibidez, Durangaldean, Ipar Euskal Herrian eta Araban egongo gara, lehenengoz".

Galartzak txikitatik eduki du afiziotzat zirkua. Hainbat urtez izan du proiektua buruan, eta iaz



Gure Zirkuaren emanaldi bateko argazkia.

lortu zuen gauzatzea. Une honetan, hamabi kideko lantaldea osatzen dute. "Talde egonkorra sortu dugu eta horrek asko errazten ditu gauzak. Orain, lasaiago irteten gara emanaldietara, eta saioak hobetzeko aukera ere izan dugu", azaldu du Galartzak. Poxpoloz gainera, Koldo Arakistain eta Irati Gonzalez akrobatek, Asier Kidam magoak, Ekain Iburguren malabaristak, Garazi Pascual ekilibristak, Iraitz Lizarraga trapezistak eta Helene Galartza eta Ane Miren Garcia kontortzionistek osatzen dute zirkua. Joseba Usabiagak Don Martin aurkezlearena egiten du.

"Iluntzeko saioa oso aproposa da helduentzat, zerbeza eta krispetak hartuta ikusteko"

Egingo dituzten hamaika emanaldien egitaraua ANBOTOk Agendan dago ikusgai

Aproposa gazteentzat

Aurreiritziak utzi eta zirkura joateko gonbidapena egin du Galartzak:

"Iluntze aldera egiten dugun saioa oso aproposa da gazte eta helduentzat, zerbeza bat eta krispetak hartuta ikuskizunaz gozatzeko". Beste edozein kultur ekitaldi legez hartzeko gomendioa egin du.

Gure Zirkuak dituen ezaugarrien artean, hainbat nabarmendu ditu Galartzak; tartean, "hurbiltasuna". "Umeei oso deigarria egiten zaie trapezista beraiengandik lau metrora edukitzea, normala den moduan", nabarmendu du Galartzak. Zuzeneko musika ere azpimarratu du; izan ere, Gure Zirkua familian musikari bi ere badaude: Ibon Mendibil eta Unai Zabaleta.

"Artistak dira. Hainbat instrumentu jotzen dituzte eta sekulako ekarpena egiten dute", esan du. Besteak beste, Mikel Laboaren doinuak ere jotzen dituzte ikuskizunean, giro berezia sortuz. "Zirku klasikoa da, baina euskal kutsu hori ere badu", gaineratu du.

Hamaika emanaldi

Maiatzaren 17tik 26ra bitartean hamaika emanaldi eskainiko ditu Gure Zirkuak Berrizen. Datak eta orduak ANBOTOk Agendan agertzen dira. Sarrerak www.eventbrite.com atarian eta zirkuako txarteldegian erosi daitezke.

Bertsoa, artea, museoa eta pintura uztartzen dituen saioa antolatu dute maiatzaren 18ko Museoaren Egunerako

MUSEOAK • ARITZ MALDONADO

Igor Elortzak eta Miren Amurizak Maite Berriozabalek jarritako gaiei buruz abestuko dute. Kasu honetan, baina, Durangoko Arte eta Historia Museoa izango da plaza. 1977tik hona, mundu osoan zehar ospatzen da Museoaren Eguna maiatzaren 18an. "Bertsoa museoetan gorde ezin den ondare immateriala da, eta horregatik ekarri gura izan ditugu bertsolariak plazatik museora. Zerbait berezia

Igor Elortzak eta Miren Amurizak Maite Berriozabalek jarritako gaiei buruz abestuko dute

Hontza Museoko laborategia eta biltegia erakutsiko dituen bisita gidatua egongo da

egin gura izan dugu", azaldu zuen Garazi Arrizabalaga museoko zuzendariak martitzeneko aurkezpenean. Bertso saio "esperimental" 19:00etan hasiko da.

Bisita berezia

Bestalde, Mañariko Hontza Museoan bisita gidatua berezia antolatu dute maiatzaren 18rako. Laborategia eta biltegia erakutsiko dituen bisita gidatua prestatu dute. 13:00etan izango da.



Maiatzaren 18an izango da bertso saio "esperimental".

Muted eta Kohatu tarteko, Baterafest lagunarteko musika jaialdia egingo dute Plateruenean, gaur

Abadiñoko eta Berrizko taldeez gain, Atlantida, Niketz eta Mi Dulce Geisha taldeek ere parte hartuko dute Plateruenean; maiatzaren 17an izango da, 20:00etan, eta "mainstream esparrutik aterata", musika jaialdia eskaintzea da asmoa

MUSIKA • KAROLINA SUAREZ

Muted, Kohatu, Atlantida, Niketz eta Mi Dulce Geisha musika taldeetako kideek lagunartean antolatutako musika jaialdia da Baterafest. Gaur egingo dute, maiatzak 17, Plateruenean, 20:00etan.

Jaialdia antolatzeko arrazoiaren artean, Berrizko Kohatu musika taldeko Joseba Romero abeslariak musikarien arteko indarrak batzeko beharra azpimarratu du: "Musika lokaletan egoten garen talde herrikoien arteko indarrak batu eta gure kontzerturik onenetariko bat emateko antolatu gara".

Elkarren arteko babesaren garrantziaz ere egin du berba: "Gure artean lagundu ezik, egungo panorama musikalean ezingo dugula lekurik egin oharitu gara". Romerok azaldu duenez, musika jaialdi asko egoteak ez du esan gura horietan talde gehiagok jotzen dutenik. Izan ere, "betiko taldeek jotzen dute toki guztietan". *Mainstream* esparruaren aurrean, alternatiba sortzeko beharra gehitu du: "Herrietan eta talde

txikietan ere panorama badagoela erakutsi gura dugu. Ahotsa altxatu eta hemen gaudela erakustea da asmoa". Romerok esan bezala, "leku on batean" egin gura zuten jaialdia, eta horregatik aukeratu dute Plate-

ruena. "Durangaldean daukagun puntako lekua da. Kohatukook hainbatetan jo dugu bertan eta ikaragarria da guretzat", azaldu du. Bariku honetan Kohatuko kideek izango duten jarrera nabarmendu

gura izan du: "Oholtza gainean den-dena emateko prest gaude, ilusio guztiagaz gogor ekiteko prest. Basatiagoak gara orain, baina modu sotilean", argitu du. Abadiñoko Muted talde gonbidatua izango da.



Kohatu.

Zap'ing film laburren VI. lehiaketa antolatu du Zapaburu konpartsak

Maiatzaren 17tik 19ra izango da, Plateruenean, eta domekan aurkeztuko dituzte film laburrak



Zap'ing lehiaketaren iazko edizioa Plateruenean.

FILM LABURRAK • KAROLINA SUAREZ

Zap'ing lehiaketaren helburua gehienez zortzi minutuko film labur bat ekoiztea da. Horretarako, egun bi baino gutxiago izango dituzte parte-hartzaileek. Sari banaketa maiatzaren 19an izango da, 18:00etan, Plateruenean. Arrate Erdoiza Mujika Zapaburuko kideak azaldu duenez, aurtengo helburuak bestelako aisialdi aukerak eskaintzea eta kultura sustatzea dira. "Harrera ona izan du Zap'ingek urtero", gehitu du Erdoizak, nahiz eta antolaketan gazte kopurua geroz eta murriztagoa den. "Antolaketan parte hartzea ere animatu gura ditugu gazteak", azpimarratu du. Berezitasun moduan, sariek bertoko produktuekin eta kultura sustatzeagaz izango dute lotura.

Gai librea

Fernan Ruiz Larrigan
Euskara teknikaria



Lozorroa

Leiho gogokoenetakoa dut Pinondokoa. Kanpoaldera begiratu eta gure ekosistemaren osagarri ugari ikusi eta antzeman daitezke, argia, iluna, hezea, kurrilo mokoluzeak, bizia... Etxe barruko baso txikia ere oso aberatsa dela esango nuke, eta bizia hori ere. Sumatzen dut, ordea, lozorroan daudela zenbait espezie, eta esnatutakoan, gosearen gosez, kanpoaldera irten eta indar huste lehiansuan ari direla, ekosistemaren orekari eusteko asmo zintzoaz.

Claverina eta Sorita batera ekarri zituzten joan den udazkenean Pirinioetako mendebaldera, inguruan bizi diren ar biek in ugaldu eta espezie iraunarazteko. Hibernazio saketatik gose aseeginaz itzartu da Claverina, eta lorratzak lekuko, deskalabrua egiteaz batera, ikara ere zabaldu du artzainen artean. Orain, geolokalizatzailerak jarri diete biei une oro nondik nora dabilozan jakiteko, non jan dezaketan eta non ez irakasteko, inguruko bizidunengandik urruntzeko; espeziearen onerako baita.

Gure hartzen antzera bizi garelako sentitzen dut askotan, jazarpenari eusten, geomugatuak: lepokoa, eskumuturrekoa, azalean sartutako txipa... Baina era berean, lozorroan eroso gaude, esnatutakoan ere eroso, gose eta gozo, badagoelako burmuina zelan elikatu, Netflix, HBO, Bein, sare pozoitsuak eta beste asko. Hori gura omen dugu. Alabaina, arriskuak bista koak diren arren, oraindik ez zait buruaz beste egiteko unea iritsi, ez Pinondoko leiho zahar honetako ikuspegia zeharo lausotu arte, behinik behin.



clínica dental hartz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RPS: 145-13

hitz

liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak



KONTRAKO EZTARRITIK
Uxue Alberdi
Susa



BASA
Miren Amuriza
Elkar



DEKLARATZEHORIK EZ /
Beñat Sarasola
Susa

Emakumeen Bira: erlojupekorik ez eta mendate gogorak, igotzaile direnen gozamenerako

Eider Merino eta Ane Santesteban txirrindulari euskaldunentzat ibilbide aproposagoa da aurtengoa

TXIRRINDULARITZA • J.D.

Aurtengo Emakumeen Bira eskalatazailen neurrira egindakoa da. "Inoiz antolatu dugun ibilbiderik gogorrena da", onartu du Agus Ruiz Birako antolatzailereak. Horri gehitu behar zaio aurtengo ez dela erlojupekorik izango. Beraz, irabazlea aldapan gora erabakitzea litzateke normalena.

Erabaki bata zein bestea euskal ziklisten mesederako da. "Ahalik eta lanik txukunena egiteko moduko ibilbidea erraztu gura izan diegu gure txirrindulariei", onartu du Ruizek. Batez ere, izen bi ditu buruan: Movistar taldeko Eider Merino (Balmaseda, 1994) eta WNT-Rotor taldeko Ane Santesteban (Errenteria, 1990). "Iaz oso ondo aritu ziren eta aurtengo erlojupeko barik... ikusiko dugu", gehitu du. Merinori "aurreneko bosten artean" sailkatzeko aukerak ikusten dizkio.

Amanda Spratt australiarra eta Annemiek Van Vleuten herbeheretarra, iazko irabazlea eta bigarren sailkatua, izango dira aurtengo erlojupeko faborito nagusiak. Udaberriko klasiakoetan indartsu ibili dira.

Lehen etapa, lurretan

WWT maila duen Birari datorren asteko eguaztenean ekingo diote, lurretan hasi eta amaituko den etapagaz. Mendaterik gogorrenak



Amanda Spratt australiarra faborito nagusienetakoa da iazko garaipena berritzeko.

azken egun bietan igoko dituzte. Hirugarren etapa Santa Teodosia gainean (Araba) amaituko da: 2,7 kilometrotan %15era arteko pendi-za duten aldapan aurkituko dituzte ziklistek. Horrez gainera, azken egunean, Asentzio bere alde gogorretik igoko dute, Angiozarretik.

Bizkaia-Durango

UCI mailako 20 taldeen artean eskualdeko bat dago: Bizkaia-Durango. Nicole D'Agostin-egaz 23 urtez azpiko sailkapena lehiatzea dute helburu nagusi. "Ez da erraza

Agus Ruiz: "Gure ziklistei bidea erraztu gura izan diegu, ahalik eta lanik txukunena egiteko"

Durungaldeko txirrindulari bi arituko dira: Aroa Gorostiza eta Ziortza Isasi elorriarrak

izango, baina eskalatazaila da eta aurtengo Biraren ezaugarriak ikusita, badugu esperantza", azaldu du Agurtzane Elorriaga taldeko zuzendariak. Beste bost txirrindularik osatuko dute Bizkaia-Durango taldea eta, tartean, Aroa Gorostiza elorriarra dago. Eurekin ihesaldiak hartzen eta "lasterketako parte izaten" ahaleginduko dira.

Gorostizagaz batera, beste elorriar bat ere arituko da Emakumeen Biran: Ziortza Isasi, Eneicat taldeagaz. Joan zen astean, Arabako Itzuliko etapa bat irabazi zuen.

BIRAKO ETAPAK

MAIATZAK 22

• **Non:** lurreta-lurreta
• **Luzera:** 101 kilometro

MAIATZAK 23

• **Non:** Aduna-Amasa
• **Luzera:** 112 kilometro.
• **Mendateak:** Altzo (3. maila), Alkiza (3. maila)

MAIATZAK 24

• **Non:** Zuiako Ametzaga-Santa Teodosia
• **Luzera:** 98 kilometro
• **Mendateak:** Opakua (1. maila), Santa Teodosia (2. maila)

MAIATZAK 25

• **Non:** Oñati-Oñati
• **Luzera:** 156 kilometro
• **Mendateak:** Udana eta Untzilla (3. maila), Atagoiti (2. maila), Asentzio (1. maila)

Durangoko Klasikoa

Biraren aurretik, urtero lez, Duranguesa elkartek Durango Emakumeen Laboral Kutxa Saria antolatuko du datorren astelehenerako. Goi mailako 19 talde batuko ditu.

Lasterketa 15:00etan hasiko da, Ezkurdin. 113 kilometrotan zehar, Durango, Iurreta, Abadiño, Berriz, Miota, Elorrio eta Abadiño zeharkatzen dituen zirkuituari bost itzuli emango dizkiote. Azken itzulian, Garaitik Goiuriara igoko dira. Hortxe izango dituzte aldaparik gogorrenak.

Alfontso Arroio eta Alessandro Ruta Italiako Giroan komentaria ari dira ETBren zuzeneko emanaldietan

Ruta kazetari italiarrak ondo ezagutzen ditu emankizunetan agertzen diren inguruak, eta eurak izaten ditu berbagai



Alfontso Arroio eta Alessandro Ruta.

TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO

Italiako Giroa martxan da eta ETBk zuzenean eskaintzen ditu eguneko etaparen nondik norakoak. Bilboko estudioan batzen den lantaldeko kazetari bi eskualdekoak dira: Alfontso Arroio abadiñarra eta Otxandion bizi den Alessandro Ruta italiarra.

Arroio ETBko kazetari ezagunetako bat da eta urte askoko esperientzia du. Ruta, ostera, berria da gehientzat. Kirol kazetaria da formakuntzaz, eta hiru urte eta erdi daramatza Otxandion bizitzen. Egutetik egunera hobeto moldatzen da euskaraz, eta ETBren eskaintza heldu zitzaionean ez zuen dudarik izan. "Zergatik ez? Beti positiboa izan naiz", dio.

Egunero autobusez egiten du Bilboko estudioetarako joan-eto-

ria. Hantxe batzen da Fermin Aramendi, Xabier Usabiaga eta Alfontso Arroiogaz. Argi du beste hirurak direla protagonistak, saioko pisua daramatenak. Honela azaldu du bere zeregina: "Ni hiru tenoreen morroia naiz. Kantinplorak eramaten dizkiet behar dutenean". Italiarra izanda, inork baino hobeto ezagutzen ditu irudietan agertzen diren tokiak, eta horrek berbagai ematen dio. "Italiari buruz berba egitea da nire lana. Inoiz, etapetako kilometro batzuetan ez da ezer gertatzen eta, orduan, beste era bateko entrenimendua eskaini dezaket, inguruak deskribatuz edo tokian tokiko bitxikeriak kontatuz", azaldu du. Beste aste bi geratzen zaizkio Italiari buruz dakiena ikus-entzuleei kontatzeko.

Padel torneo solidarioako izen-ematea asteburuan zehar egin daiteke

PADELA • J.D.

Durangoko Fair Play Padel Klubak 5. Padel Torneo solidarioa antolatu du aste batzuk barrurako, eta hasi dute bertan parte hartzeko izen-ematea. Gaurtik astelehenera egin daiteke, 19:00etatik 21:00etara, Landako Kiroldegian, 12 euroren truke.

Batutako dirua SFC-SQM Euskadi AESEC elkarteari emango diote. Sentikortasun zentrala izeneko sindromeak nerbio-sisteman modu batera edo bestera eragindako pertsonen laguntzen die elkarte honek.

Torneoaren lehen fasea maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean, 2an eta 7an jokatu dute, Arripausuetan. Azken fasea ekainaren 8an eta 9an izango da. Gizonen eta emakumeen kategorian bana izango ditu.

Goi mailako taldeekin Durango Neskak Rugby torneoa jokatuko dute zapatuan, Arripausuetan

Taldeetako bat Neskarians izango da. Talde denetako jokalariek osatutakoa da eta errugbiaren balioak irudikatuko ditu

ERRUGBIA • J.D.

Durango Rugby taldeak urte birik behin antolatzen duen torneoa zapatu honetan izango da. Emakumeen errugbia sustatzea izango du helburu, eta sei talde batuko ditu: Durango Rugby taldea, La Unica, Biarritz Olympique, Hernani, Getxo eta Neskarians.

Neskarians taldeak Barbarians taldeari egiten dio erreferentzia, eta haren filosofia bera sustatzeko helburuz sortuko dute. Adiskideta-

suna, kiroltasuna eta errugbian sustatzen diren gainerako balioak sinbolizatzen dituen taldea izango da, eta talde denetako jokalariek osatuko dute.

Sei taldeak multzo bitan banatuko dira. Ligaxkako partiduak goizean jokatu dituzte, 10:30ean hasita. Arratsaldeko jardunaldia 16:00etan hasiko da eta talde biek 18:00etan jokatu dute finala. Horren ostean, partaide denek Landako Gunean afalduko dute.



DRTko ordezkariak eta talde nagusiko jokalariek martitzeneko aurkezpenean.

Ariznabarretak Espainiako txapelketagaz gizendu du garaipenez betetako urtea

MENDI LASTERKETAK • J.D.

Oier Ariznabarretak kapitulu berri bat, denetan garrantzitsua, gehitu dio aurtengo denboraldi ederrari: bere ibilbidean lehenengo, mendi lasterketen Espainiako Txapelketa irabazi du.

Joan den domekan izan zen, Otañesen (Kantabria). Durangarrak 2.54.17ko denboran osatu zituen ibilbideko 34 kilometroak.

Urtea hasi denetik beste bost lasterketa ere irabazi ditu eta eurtako hirutan (Aian, Senperen eta Kanpezun) probako errekor berria ezarri du.



Ariznabarreta Otañeseko helmugara sartu berrian. EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

Abadiño mailaz igo daiteke etzi Astolan jokatu duen partiduan

Abadiñok bere partidua irabazten badu eta Baskonia Bk eta Mungiak ez, Maila Gorenera igoko da eskualdeko taldea

FUTBOLA • J.D.

Abadiñok Maila Gorenerako igotzea lortu dezake asteburuan Astolan, zaleen aurrean. Horregatik, klubetik dei egin diete zaleei, zelaira joan eta taldea animatzeko. Domekan izango da partidua, 17:00etan, Ermuaren aurka.

Hiru emaitzen baitan dago abadiñarren igoera. Lehenengo eta behin, Ermua menderatu behar du etzi. Bestalde, Baskonia Bk eta Mungiak euren neurketetan huts

egin behar dute, Abadiñok mailaz igo ahal izateko.

Iurretakoren aukerak

Azken asteetan, Iurretakok aukera bi alferrik galdu ditu Urduliz liderra harrapatzeko. Talde biek segurtatuta dute igoera fasea jokatzea, baina zuzenean igo gura dute. Orain, puntu bi aurretik dago Urduliz. Iurretakok Erandio- ren kontra jokatu du zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaian.

Asteko kirolaria



AITOR ELORDI TXAKARTEGI

Mallabia, pilota

“Mailara egokitu naiz eta neure lekua aurkitu dut; gakoa hor dagoela esango nuke”

Buruz buruko finala maiatzaren 25ean jokatu du Aitor Elordi pilotari mallabitarrak

pela irabazi ostean, joan zen asteburuan buruz buruko finalerako txartela lortu zuen.

Javier Zabalar 22-14 irabazita, buruz buruko txapelketarako txartela lortu duzu. Nola ikusi zenuen zeure burua joan zen asteburuan?

Partiduko lehen zatian abantaila dezente hartu nuen, eta bigarren zatian ondo etorri zitzaidan hori. Bigarren zati horretan Zabala buru-belarri sartu zen partiduan,

eta gogor astindu zuen pilota. 14-16 hurbildu zitzaidan. Gero, sakea neuk hartu eta, zorionez, 22ra arte jo nuen zuzenean. Partidu gogorra eta tentsio handikoa izan zen.

Partiduan fresko eta konfiantzagaz egon zinen.

Egia esan, partidu horretara konfiantza handiagaz joan nintzen, fisikoki ondo prestatuta nengoelako alde batetik, eta aurreko partidua irabazteak konfiantza eman zidako bestetik.

Axpek buruz burukoa jokatzeo aukera eman zizunean, zeure burua finalean ikusten zenuen?

Udatik oso bolada onean nabil eta Axpekoek txapelketa jokatzeo aukera eman zidatenean, modalitate horretan lehiatzeko prest nengoela ikusi nuen neure burua. Buruz burukoa modalitate gogorra da, eta, egia esan, aukera eman zidatenean asko poztu nintzen. Baina ez nuen uste finaleraino helduko nintzenik.

Zelan ikusten duzu zeure burua finalerako?

Ondo eta gogotsu. Azkenaldian konfiantzaz nabil jokatzeko. Ondo nago fisikoki, eta psikologikoki ere aurrera egin dut. Horri esker, ondo enfokatzen ditut partiduak.

Aurten kalitatezko salto bat eman duzu. Zein izan da gakoa?

Mailara egokitu naiz eta neure lekua aurkitu dut; gakoa hor dagoela esango nuke. Gauza bakoitzak bere momentua behar du. Debutatu nuenetik, topera nabil lanean, eta nahiz eta hobekuntza orain ikusi, antzeko martxan aritu naiz entrenatzen. Debutatu nuenean, agian ez nintzen guztiz zailduta egongo, baina egindako lanak fruituak eman ditu.

Bere kirol ibilbideko unerik onenetariko batean dago Aitor Elordi pilotari mallabitarra. Apirilean binakako promozio mailako tx-



Alazne Murgoitio, Espainiako txapelketako podiumean.



Elorrio B futbol taldekoak igoera ospatzen.



Elorrio Rugby-Parra Tabernako jokalariek Lehen Mailara igo ostean.



Ziortza Isasi Amurrioko etapan helmugaratzen, Arabako Itzulian.

Bide guztiek Elorrion bat egiten dutenean

Joan zen asteburua Elorrioko kirolarien asteburua izan zen; lorpen garrantzitsuak eskuratu zituzten, hainbat arlotan

KIROLA • JOSEBA DERTEANO

Diziplina askotan maila onean dabilzan kirolariak ditu Elorriok, eta horren erakusgarri izan zen aurreko asteburua. Igoerak, dominak, garaipenak... Egun bitan hainbat lorpen izan zituzten herri bereko kirolarien artean, bide guztien helmuga Elorrio izango balitz bezala.

Errugbian eta futboleant, gora

Elorrio Rugby Taldea-Parra Tabernak urteetan bila zebilen igoera lortu zuen joan zen zapatuan, Irunen. Euskadiko Lehen Mailan arituko dira hurrengo denboraldian. Esperientziadun jokalariek eta aurten igo diren gazteek errezeta perfektua osatu dute. Gainera, etorkizunari baikor begiratzeko moduan daude, argi geratu delako belaunaldi berria kalitate handikoa dela.

Bestalde, Elorrio Futbol Taldeko lehen taldea merituzko denboraldia osatzen ari da Ohorezko Mailan (bosgarren dago), baina ospakizunerako arrazoiak klubeko

Esperientziadun jokalarien eta gazteen arteko uztarketak igoera eman zion rugby taldeari

bigarren taldeak eman du: Elorrio Bk. Bigarren Erregionalera igo zen zapatuan, Basaurin 0-1 irabazita. Arratsaldean ez zen jai girorik falta izan Elorrion, kamioi batean herriari itzulia emanez eta kantuan ospatu zutelako igoera. Datu bat: ligan partidu bakarra galdu dute.

Baliteke datozen asteetan ospakizun gehiago etortzea. Areto-futboleant, zehatzago esanda. Izan ere, Elorrioko Buskantza-Parra Taberna Bigarren B Mailara itzultzeko bo-

rrokan dabil. Jardunaldi biren faltan, orain ez dute azken berba esan.

Murgoitio 22 urte gaz hasi zen kickboxingean, eta gorakada handia izan du denbora gutxian

Murgoitoren gorakada

Gustuko den hori egiteko sekula ez dela berandu erakutsi du Alazne Murgoitio. 22 urte gaz hasi zen kickboxingean. Urte bian astegunetako egunik gehienetan eta, sarritan, goiz zein arratsalde entrenatu izan da. Orain lan horren fruituak jasotzen ari da. Orain hilabete batzuk Euskadiko txapelkun geratu zen eta joan zen asteburuan, Guadalajaran, brontzezko domina irabazi zuen Espainiako Txapelketan 65 kilotik beherakoen artean, Euskal Selektzioa ordezkatuta.

Isasi, bere neurriko taldean

Aurten talde berria estreinatu du Ziortza Isasik. Eneicat izeneko proiektu berrira batu da eta bere neurriko taldea aurkitu duela dirudi. Joan zen domekan, Arabako

Arabako Itzulian etapa bat irabazi eta sailkapen nagusian bigarren tokian amaitu zuen Ziortza Isasik

Itzuliko hirugarren etapa irabazi zuen esprintean. Itzulia bigarren tokian amaitu zuen. Belodromoan ez ezik, errepidean ere garaipenen zakua loditzen ari da apurka-apurka 23 urteko elorriarra.

Jokaldia

Gotzon Gomez Barrenetxea
Errugbia



Derbia aspaldiko partez

Hasi aurretik, Elorrio Rugby Taldea zoriondu nahi dut lortutako igoeragatik. Gaztetasunak askotan talde bat eraldatzeko gaitasuna erakusten du, eta adibide garbiena aurten Elorriori gertatu zaiona litzateke. Urte batzuk pasatu ditu hor nonbait apur bat indarra galdua, baina belaunaldi indartsu eta gazte batek taldea biziberritu du.

Denboraldi bikaina burutu dute, joko arina eta indartsua erakutsiz, nahiz eta taldekide asko eskarmentu bako jokalariek izan maila honetan, baina ilusio itzelarekin, gogoarekin, baina, batez ere, 18-19 urte izatearen abantailarekin, beste ikutu bat eman diote taldeari, igoera lortuz, eta eskarmentu handiko taldeak bidean utziz.

Beste muturrean Durango Rugby Taldearen kasua daukagu. Ohorezko B Mailan 16 urte eman ondoren, aurten mailaz jaitsi dira. Zergatik? Alde batetik elorriarrek arrakasta lortu duten ezaugarri berdinagatik, hau da, gaztetasunagatik. Ezaugarri berdinak izanda, gutxitan dira emaitzak hain kontrajarriak. Jaitziera porrot moduan har daiteke, eta batzuek horrela ikusiko dute. Nik, aldiz, aukera handia izan daitekeela uste dut, eskarmentua hartzen joateko eta etorkizunean beste erronka batzuei aurre egiteko.

Argi dagoena da 2019-2020 denboraldian gutxienez bi derbi izango ditugula eskualdean. Talde biek oso jokalarik gazteak dituzte, eta, gainera, horietako askok batera jokatu dute gazte mailetan hainbat urtetan talde bera osatuz, iaz 18 urte azpikoan Euskadiko azpitxapelkunak izandakoak. Beraz, dudarik gabe, gauzak pillean egongo dira norgehiagoka horietan.

Bejondeiela talde biei, eta harrobia lantzen jarraitu dezatela, etorkizuna bertan dago eta.

urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako
Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

CERAMICAS
MACOBER

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

Arrike
Liburudonda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean



HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA/NEGOZIOAK
DENETARIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA/KIROLA
FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK SALDU

Elorrio. Atiko polita errentan Elorrioren. 50 m². Irogailuarekin. Tel.: 631 12 31 06

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Durango. Hiru emakume arduratsu San Fauston edo Durangon alokairuan dagoen etxe baten bila gabiltza. Tel.: 644 93 06 79

Zaldibar. Zaldibarren, herri erdigunean, 3 logelako pisua, oso eguzkitsua, igogailuarekin. Tel.: 616 24 30 53

Durango. Durangon atiko txiki bat alokatzen dut, igogailuarekin. Bikoteentzako aproposa. Azokaren inguruan. Hilean 490€. Tel.: 695 74 22 38

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Pisu bila nabil, alokairuan. Pisu

bat alokatu nahiko nuke, Durangon San Fauston, edo lurretan. Kontratoarekin, eta 500-600€ hilabetean ordaintzeko prest nago. Hurrengo telefonora deitu, gaztelaniaz mesedez. Tel.: 644 93 06 79

Elorrio. Elorrioko bikote arduratsu bat gara eta alokairuzko pisu bila gabiltza (Elorrioren bertan). Tel.: 688 64 06 04

Alokairuko etxe bila lurretan. Bikote gazte, euskaldun, langile eta arduratsua alokairuko etxe bila gabiltza lurretan. Hemen gure Tel.: 688 64 6023

PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Emakume arduratsu eta esperientzia handikoa lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, gauz zein egunez. Gainera, berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 646 35 87 09

Lan bila nabil pertsonak

zaintzen. Mutil nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu deitu Tel.: 612-53 93 89

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu deitu Tel.: 632 35 60 66

LAN ESKAINTZAK

PERTSONAK ZAINDU

Etxeko lanak egiteko, edo adineko pertsonak zein umeak zaintzeko lan bila nabil. Kaixo, etxeko lanak egiten, zein adineko edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Neska latinoamerikarra naiz, arduratsua, tratu onekoa. Jendearekiko harremana gustatzen zait. Edozein inguru zein pertsonengana egokitze gaitasuna daukat eta azkar ikasten dut. Barneko langile moduan lan egiteko prest

nago, adineko pertsonak edo umeak zaintzen edota etxeko lanak eta janaria prestatzeko ere. Berehalako prestutasuna daukat. Bizkaia edota Gipuzkoan. Telefonoz edota whatsapp-ekin kontaktatu, gaztelaniaz mesedez. Tel.: 644 93 06 79

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Barneko langile moduan, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest nago. Gipuzkoa zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuak deitu edo Whatsapp-a bidali, Tel.: 602 89 50 18 gaztelaniaz mesedez.

Barneko langile lan bila. Adineko pertsonak edota haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa lanak, arropa litzatzeko, sukaldaritza lanak egiteko prest nago (40 urte). Berehala hasteko prestutasunarekin. Tel.: 644 55 83 90

Barneko langilea lan bila.

Emakume arduratsua lan bila. Barneko zein kanpoko langile gisa adineko pertsonak edo haurrak zaintzen lan egingo nuke. Sukaldean ere aritu naiteke. Berehala hasteko moduan. Tel.: 632 70 52 25

Barneko langile gisa lan bila.

Barneko zein kanpoko langile gisa lan bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu: Tel.: 643 72 71 98 zenbakira.

Ibilgailuak

AUTOAK

Land Roverra erosiko nukel. Land rover defenderra erosiko nuke, berdin du ze egoeratan dagoen, itv gabe, aberiatua, golpearekin... Jarri harremanetan, Tel.: 623 17 95 37

GAINERAKO IBILGAILUAK

Mendiko Bizikleta GT Zaskar. Mendiko Bizikleta / MTB / Marka: GT / Modeloa: Zaskar Elite Alum. / Urtea: 2015 / Errubera: 27,5" / Tel.: 686 214 964



ANA GALARRAGA ASTE HONETAN GABI DE LA MAZA

DOAN

Ttap euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero dohainik zure mugikor edo tabletean.



ttap
Irakurri, ukitu,
ikus, entzun.

Informazio gehiago:
ttap.eus



DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n

Botikak

BARIKUA, 17
09:00-09:00

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 18
09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurreondo 22. - **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA
Berrio-Otxoa 6 - **ELORRIO**

EGUREN, ISABEL
Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 19
09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 20 - 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurreondo 22. - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 21 - 09:00-09:00

ETXEBARRIA
Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 22
09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 23
09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.



Zorionak, **Garazi!** Gaur betetzen dituzu urteak. Jarraitu horrela, alaia, jatorra eta arduratsua izaten. Musu potolo bat maite zaitugunon partez!



Zorionak zure urtebetetzean, **Liher!** Aitxite, amama eta gurasoen partez.



Araitz Arrizabalaga Zuazok 10 urte egingo ditu maiatzaren 18an. Zorionak, printzesa.



Maiatzaren 20an urtebete egingo dau gure etxeko txikixak. Zorionak eta muxu Potolo bat, **Izei!**



Paulak 1 eta **Itxasok** 34. Zorionak eta patxo bana ama-alabei etxeko danon partez. Desietan gauz kandlei putz eitteko.



Joan zen barikuan **Nahia** Martin durangarrak 6 urte egin zituen. Ederto pasatu gendun. Mosu handi bat familia osoaren partez.



Lupi, maite zaitugulako. Nepale-tik Barru, Javi eta Inhar



Zorionak, **Josu!** 20 urte borobil bete dozuz jada eta! Lurretatik besarkada bat Uxuek eta Anartzek!

Eguraldia

ZAPATUA 15° / 7° ☀️

DOMEKA 15° / 9° ☁️

ASTELEHENA 15° / 9° ☁️

MARTITZENA 16° / 9° ☁️

EGUAZTENA 16° / 10° ☁️

EGUENA 23° / 9° ☁️



Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta
Tel.: 946 205 187 - Faxa: 946 205 194

“Euskal ezkontzara baserritar jantzita etortzera animatu gura dugu jendea”

Ospakizun handia izango dute Abadiñoako San Trokaz jaietan, bihar, 12:30ean. Euskal ezkontza antzinako erara egingo dute eta ekitaldiko antolatzaile eta protagonistetako batzuk Iturriagaetxebarria, Urien eta Salterain dira

Eneko Iturriagaetxebarria Iburguren (Abadiño, 1974), **Jaione Urien Madrazo** (Abadiño, 1977) eta **Jose Antonio Salterain Bediaga** (Abadiño, 1960)

AKUILUA • JONE GUENETXEA
Eguraldiari begira zaudete?

Eneko: Bai. Kalejira garrantzitsua da.
Josean: Ikusgarriena da, zalantzarik barik. Jendeak ikusmina izaten du ingurukoak jantziekin ikusteko.
Jaione: Zeremonia bera ere eliza aurrean egin edo frontoian, ez da berdina.
Euria egiten badu, zein da B plana?
Eneko: Euria egiten badu, frontoian edo elizpean egingo dugu, eta bazkaria, probalekuan. Ziurrenik elizpean izango da, arrea doan idien gurdia ezin delako frontoira sartu.
Jaione, orain lau urte zeu izan zinen protagonista.
Jaione: Neu ezkondu nintzen, bai. Esperientzia oso polita izan zen. Ederto pasatu genuen.
Zeintzuk dira zuen paperak ezkontzan?
Jaione: Ni gonbidatua izango naiz.

Eneko: Ni, alkate. Orain arte notarioa izan naiz, baina aurten Ekaitz Herrera izango da kontratua irakurriko duena.
Abade paperean gustura ikusten zaitut, Josean.
Josean: Lehen ere eliza asko zapal dutakoa naiz. Monagillo legez makina bat mezatara joandakoa naiz San Pedro Txikin.
Jaione: Iaz barregarria izan zen, ezkontza ostean abadea monagilloekin poteoan joan zelako.

Jantziek kolorea ematen diote ekitaldiari.

Jaione: Euskal ezkontzara baserritar jantzita etortzera animatu gura dugu jendea

Eneko: Antza denez, beltzez jantzita joatea zen ohitura, eta

iaz batzuk horrela etorri ziren.

Jaione: Jendea ilusioagaz dabil jantziak prestatzen.

Zer prestatu duzue ezkontzarako?

Eneko: Ezkontzaren ostean bazkaria izango da. Lehenengo urtean, behinolako ezkontzetako menua prestatu genuen: garbantzuak eta oilaskoa. Aurten, ostera, paella izango dugu. Txartel guztiak salduta daude.
Josean: Nobedade lez, kalejiran dultzaineroak, erraldoiak eta trikitilariak joango dira.

Eneko: Herriko dantzariak dantza egingo dute, Iluntzekoek eta Talde Batuak taldekoek.

Zelan prestatzen duzue arreorako gurdia?

Jaione: Jendeak etxean duena ekartzen du. Balio sentimental handia duten gauzak izaten dira: izarak, armairuak...

Nondik atera duzue ezkontzan irakurtzen den dokumentua?

Eneko: Benetako dokumentu bat da, Mila Salterainek aurkitutakoa. Abadiñoako bikote baten ezkontzako

Berba bitan

Jai batzuk?

Eneko: San Ferminak.

Josean: Salbadore jaiak

Jaione: Mendiolako San Kristobal

Mendi bat

Eneko: Alluitz

Josean: Auñamendi

Jaione: Astxiki

Musika talde bat.

Eneko: Judas Priest

Josean: Puro Relajo

Jaione: Esne Beltza

agiria da. Gure familiakoa da. 1881eko maiatzaren 23an ezkondu ziren Placido Iturriagaetxebarria eta Valentina Orobiourrutiaren dokumentuak dira.

Noiz antolatu zenuten lehenengoz euskal ezkontza Abadiñon?

Eneko: Hau laugarren aldia izango da. 2007an ekin genion, eta lau urterik behin antolatzen dugu.

Jaione: 2005ean ika-mika egon zen udalagaz,

eta jai batzordetik bota gintuzten. Horren ostean, hainbat gauza antolatu genituen, besteak beste, euskal ezkontza. Gazte Asanbladaren eta herriko eragileen artean sortu zen. Ekimen herritarra izanda, jaietako erreferente bihurtzea poztarria da guretzat.



GARA

PAPEREZKO EDIZIOA

GARA egunkaria desagertzeko arrisku larria dago!!!

Izan ere, Gizarte Segurantzari 3 milioi euro baino gehiago ordaindu behar baitio bi urteko epean!!!

GARAK 10.000 pertsona solidarioren laguntza behar du desagertzea ez dadin!!!

GARari laguntzeko harpidetza mota ezberdinak daude.

Beraz, mesedez, egin itzazue zeuen harpidetzak hemen: **943 316 999** telefonoan / Interneten bidez helbide honetan: **www.naiz.eus**